



## Leitzako Kultur Asteak hogeiei urte bete ditu

*«Ikastolatik sortu zen Kultur Astea antolatzekeo ideia. Gero eskola eta gau-eskolako jendea elkartu zitzaion»*

Egunotan Leitzan egiten ari den Kultur Asteak hogeiei urte bete ditu, baina Miren Intxaurren Kultur Taldeko kidearen esanetan «hasierako izpiritu eta helburu berak mantentzen ditu». Hogeigarren urteurrena ospatzeko ekitaldi berezirik egi-

nen ez badute ere, garai batean eta orain Kultur Taldearen inguruan lanean aritu direnak bilduko dira afari batean.

Urtero egin den eskulan erakusketak arrakasta mantentzen

badu ere, gustoetan aldaketak izan direla uste du Mirennek. «Hasieran solasaldiak eta mahainguruak eskatzen zituen jendeak eta orain herritarrek prestatutako lanak dira ikusmina sortzen dutenak» dio. **TS 3**

### 6 Iritzia: Emakumea eta fabrika

Gai honen inguruan, bi emakume langileren eta ELAko ordezkari baten iritzia bildu dugu

### 8 Gure Berrri: TTIPI-TTAPAK administrazioaren laguntza behar du

Aldizkaria dohainik etxe guzietara ailegatzekotan, Nafarroako Gobernuaren eta eskualdeko udal erakundeen laguntza nahitaezkoa da.

### 28 Kirolak: Burmuin elbarriendako txapelketak Lesakan

Asteburu honetan Espainiako txirridula txapelketa eta hurrengoan futbolekoa jokatuko dira.

**TTIPI TXARTELA:** Erosi zeurea eta erabili!

### 4 Erreportaia: Emakumea lantegian

Gero eta harridura guttiago sortzen du emakumeak kamioia edo autobusa gidatzen ikusteak, baina lantegietan oraindik alde nabariak daude emakume eta gizasemeen artean. Eskualdeko fabrika nagusietan hagitz emakume gutti ari da eta gehienak ez dute produkzio lanean parte hartzen, administrazioan baizik.



# MUEBLES A METS

mobleak orokorrean


Bidasoa 45-60

Tfnoa:  
948 630537

**BERA**



**NEURRIRA  
EGINDAKO MOBLEAK**



1.60 metro  
**64.540 pta.**

2.00 metro  
**75.740 pta.**




**Txarandaka**

Bidasoa, 50 • BERA • © 948 630 589

**ERREKANBIO  
ORIGINALAK  
OSAGARRIAK**

**YAMAHA  
QUADS**

**NAFARROA ETA GIPUZKOAKO BANATZAILEA**



**AUTOAREN KARNETA  
BEHARREZKOA DA**

**SALMENTA ETA ALOKAIURUA**

## DATUAK.....

❖ Miren Intxaurrendok urte saila daromatza Leitzako Kultur taldean lanean, «hamalau bat, bai».

❖ Aurten 20. urtea beteko duen Leitzako Kultur Astean murgilduta badaude ere, urtean zehar beste hainbat ekitaldi antolatzen dituzte.

❖ Hamar bat lagun biltzen dira astero Kultur Taldearen bileretan. Mirenen esanetan, «orain sekulan baino lagun gehiago biltzen gara. Bat ezik denak emakumeak gara, beraz ea gizasemeak ere animatzen diren».

❖ Halere, antolaketa lanetan jendearen laguntza eskertuko lukete, «esfortzua haundia baita».

✍ Miren INTXAURRONDO *Leitzako Kultur Taldekoa*

## “Duela hogeitau urteko izpiritu bera du oraingo Kultur Asteak”

### NOLA SORTU ZEN, DUELA HOGEI URTE, LEITZAKO KULTUR ASTEA ANTOLATZEKO IDEIA?

Aurretik, gau-eskolak hainbat ekitaldi antolatzen zituzten. Gero, Ikastolako Kultur Batzordetik sortu zen ideia, juntak onartu eta egin zen. Hurrengo urterako ikastola, eskola eta gau-eskolako jendea elkartu zen. Hirugarren urterako herriko elkarteak bildu ziren eta deialdia egin zen parte hartu nahi zuten herritarrei. Indarrak pilatzen joan ziren urtez urte.

### ZEIN ALDAKETA NAGUSI SUMATU DUZU HASIERAKO KULTUR ASTE HAIETATIK GAUR EGUNEKOTARA?

Ekitaldiak, jendearen interesaren arioren aldatuz joan dira. Hasierako urte haietan, mahainguruak, hitzaldiak eta ziren gehien bat, hori zen jendeak eskatzen zuena. Denborarekin hori galtzen joan da eta azken urteotan arrakasta gehien dutenak herriko jendeak prestatutako lanak dira, antzerki emanaldia dela, filmak, musika... Aurrekontuen aldetik gero eta murriztagoak izaten dira. Joan den urtean Nafarroako Gobernuak ez zuen sosik eman eta aurten beste horrenbeste. Aurten milioi-milioi terdiko aurrekontua izanen dugu eta Udalaz



«Hogeitau urteotan arrakasta mantendu duen ekitaldia eskulan erakusketa da»

gain, herriko enpresa, komertzio eta tabernak laguntzen dute, horiei eskerrak! Halere, urtez urte aldatzen joan bada ere, Kultur Asteak hasierako izpiritu eta helburu bera mantentzen du. 1978an hasiz geroztik gorabeherak izan dira, baina inoiz ez du hutsik egin.

### KULTUR ASTEAZ GAIN BESTE EKITALDIRIK ERE ANTOLATZEN DUZUE...

▷ “Azken urteotan arrakasta gehien dutenak, urtero egin izan den eskulan erakusketaz aparte, herriko jendeak prestatutako lanak dira”

Bai, inauterietan haurrendako parke mugikorra ekarri genuen; otsailean ‘Espainiako Gerra Euskal Herrian’ liburuen aurkezpena; Emakume eta Liburuaren Egunerako ekitaldiak; Baigorriko autobus antolatu genuen Nafarroaren Egunerako, baina azkenean ez zen atera; San Juan bezperan musika taldea ekartzen dugu plazara; udan ez da deus egiten, urrian aurten adibidez, Leitzako mugaz-muga ibilaldia antolatu dugu, azaroan diskoteka mu-

gikorra ekarriko dugu eta abenduan antzerkia. **KULTUR ASTEAREN 20. URTEURRENA DELA ETA ZERBAIT BEREZIA ANTOLATU DUZUE?**

Lehen Kultur Astearen barnean Iparraldearen Eguna egiten zen eta berreskuratzeko asmoa genuen, baina ez da posible izan. Orduan, afari bat antolatu dugu hogeitau urteotan Kultur Taldearen aritu direnak eta lanean aritu direnak gonbidatuz. Bestela, gutxigorabehera azken urteetako bezalakoa izanen da egitaraua.

TESTUA:  
AITOR AROZENA  
ARGAZKIA:  
JOSEBA AZPIROZ

Emakumea eta lantegia

# Gutti dira buzoa janzteko aukera dutenak

**Komunikabideetan eta karrikan aunitz solasten da sexuen arteko berdintasunaz. Emakumearen eskubideen alde toki guzietan aitzinpausuak ematen ari dira, pixkanaka-pixkanaka zenbait kasutan, nabarmenago bertzetan. Lan munduan ere bertze horrenbertze gertatzen ari da. Gero eta harridura guttiago sortzen digu kamioia edo autobusa gidatzen emakume bat ikusteak. Lantegietan ordea, industrian batez ere, alde nabariak daude oraindik emazteki eta gizasemeek duten presentzia eta kopuruetan.**

TESTUA: ASIER GOGORZA  
ARGAZKIAK: KARMELE TOLOSA

**K**ristina Elizondo sunbildarrak 22 urte ditu eta Berako SAVEDRA lantegian egiten du lan. Kalitate-kontrollean du bere lanpostua. «Nere lana entsaioak egin eta produktu finala kontrolatzea da. Neurriak hartzea, batez ere».

Ofizinetan ere aritzen da tarteka, baina gainerakotan, produkzioan dabilen neska bakarra bera da. Administrazio lanetan, berriz, gehientsuenak emakumeak direla dio. SAVERAN bezalatsu, eskualdeko fabrika haundi gehienetan ematen da bereizketa hori. ACERALIAK Legasa, Zalain eta Lesakan dituen lantegietan, errate batera, ez dago emakume bakar bat ere makinekin ari dena. Guztira 75 emakumek egiten dute lan ACERALIAN, zerbitzu desberdinetan, bulegoetan, garbitze lanetan... Gizasemeak, berriz, 1.200tik goiti dira. Mari Karmen Prieto beraterra bulegoetan aritzen da, eta berak ez du be-

gi onez ikusten diferentzia hori: «Nik uste dut ACERALIAKO lanpostu gehienetan emakumeok berdin-berdin egiten ahal genukeela lan gizonen koen lanpostuetan. Bada pisu haundiak erabili behar diren makina bat edo bertze, eta



lanpostu horietan agian ez, baina gehienetan lasai ederrean aritzen ahal zen emakume bat gizona bezalaxe».

**“Kamioia kargatzeko ere ez dute begiratzten emakume edo gizona den”**

Lantegian emakumeak gizonen pare direla uste du Lurdes Etxeberria ALCOko langileak ere. «ALCON gauden emakumeok ia-ia denetik egiten dakigu. Badago ‘kateako-lanean’ emakumerik jartzen ez duten posturen bat, baina bertzenaz igual-igual aritzen gara emakume eta gizasemeak. Kamiona kargatu behar bada ere, ez dute begiratzten emakume edo gizona den».

Duela 25 urte inguru, bera ‘kateako-lanean’ hasi zenean, ez omen zegoen arazorik emakumei kontratua egiteko. Lurdesekek erran digunez, lana arrontean diferente egiten omen zuten orduan. «ALCOK fabrian bertan egiten zuen produkzio gehiena, ez orain bezala. Gaur egun fabrikatikan kanpora bertze tailer aunitz daude, josten aritzen direnak, adibidez. Fabrian orain ez dago josteko makina bakar bat ere, denak kanpoan dagozi». Tailer horietan lan egiten duten langileak euren kontura aritzen dira (autono-



Berako ALCO enpresarentzat hainbat emakumek lan egiten dute fabrikatik kanpoko tailerretan.

mo), ALCOK egiten dizkien eskarien arabera. Gaur egun produkzioan 13 emakume bakarrik ari dira fabrian bertan. Izan ere, emakumeek betetzen zituzten postuak kendu egin dituzte denborarekin. ALCON bezalatsu, Leitzako SA-

RRIOPAPEL enpresan ere emakume gehiago aritzen zen lanean garai batean, baina azken 15 urteotan nabarmen murriztu da kopurua. 1.400 langile izatetik gaurko 500etara. Prozesu horretan emakume ugari atera da fabrikatik, kontratua euren borondatez moztu on-

dotik. Lurdes Juantorena leitzarrak adierazi digunez, «diru bat ematen zuten aldegitearen truke. Emakume asko, ume ttikiak zituztela-eta, atera egin ziren». Lurdeseekin batera, bertze 75 bat emakume ari da gaur egun fabrian, «gehietak makinetan».

**“Ez dute baloratzen gure lanean dugun errextasuna”**

Bere ustez, bereziki emakumeentzat gordetzen dituzte zenbait lan, papera maneiatzea, adibidez. Ordaintzeko orduan, ordea, nagusiek ez omen dute behar bezala baloratzen emakumeek egiten duten lana. «Hortan bada diskriminazioa. Gizon batzuek makinekin duten errextasuna baloratzen dute, baina gure lanean duguna, berriz, ez». Lurdesekek salatzen duenez, kontratuak egiteko orduan ere ez dute zuzen jokatzten. «Emakumeak lan eske joaten direnean, esaten diete beraintzako ez dagoela lanik. Langile finko gaudenoi, ordea, lan guzitan jartzen gaituzte».

Lurdes Etxeberria igantziarrek ere iritzi beretsua du gai horretan; «emakumeak gero eta arazo gehiago dute fabriketan lan egiteko, ez baita nahiko lan denentzat. Lehena go ametitzen da gizona emakumea baino. Lan sobera baldin bazen, igual-igual egonen ginateteke, baina horrela aitzakia badute emakumeak ez hartzeko». ■

**Enplegua eta lana**

Lanaz mintzatzen garenean, ongi bereixi beharrekoak dira enplegua eta lana bera. Enplegua lansari edo soldataren truke egiten dena da. Bertzea, berriz, bizitza pribatuan egin beharrekoa: haurrak hazi edota pertsona eriak zaindu, etxeko lanak egin... Bigarren lan hau eskusiboki emakumeen ardura izan ohi da familia aunitzitan, eta hori muga haundia da emakumea lan mundura integratzeko orduan. Zenbait emakumerentzat ezi-nezkoa da enplegu batak eskatzen dituen eguneroko zortzi orduak etxetik kanpo ematea.

**lantegietako datuak**

	Denetara	Emakumeak		Gizonak
		Tailerrean	Bulegoan	
Aceralia	1.302	0	75	1.227
Alco (Bera)	146	13	17	133
Funvera (Bera)	134	0	4	130
Savera (Bera)	125	1	13	111
Martiko (Bera)	63	13	2	48
Verkol (Bera)	45	1	12	32
Sarriopapel (Leitza)	500	55	20	425
M <sup>a</sup> Josefa Recio Zaharretxea (Baztan)	69		31	38
Baztango Zaharretxea	44		37	7
Orma (Senpere)	57		39	18

❖ Eskualdean 40 langiletik goiti duten lantegietan hartuak dira datuak.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 6.800 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA  
Tfnoa: 948 63 11 88  
Faxa: 948 63 12 91

Internet:

http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

**Zuzendaria:** Aitor Arozena. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Bittoiri Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberría, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Franc Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogorza.

**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Txema Aldabe, Mikel Bezuñarte, Joxe Javier Etxeberria...

**Inprimategia:** Gertu.

**ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik.

**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkar...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNEN GAIA

### Emakumea eta lantegia

#### Gizonak adina lan egiten duten emakumeak badira, eta gehiago ere bai



Lurdes ETXEBERRIA  
ALCOko langilea

Duela 23 urte ari naiz ALCON lanean, bertze 13 emakumerekin batera kateako lanean. Hala ere, ALCO-rako lanean emakume aunitz ari da fabrikatik kanpo, josten-eta. Orain fabrikatik ez dago josteko makina bakar bat ere. Nik uste, emakumeak kentzeko politika badagoela. Orain dela 24 urte, emakumeak eta gizasemeak igualtsu kontratatzen zituzten, eta pilaka izaten ginen denbora bateko kontratua genuenak. Nahi izan zuten emakume eta gizonek lan berberak egitea, baina hori ez zen arraso lortu, gauza batzutarako indar aunitz behar baitzen. Gaur den egunean, ordea, fabrikatik gizonen pare gara emakumeak, ia-ia denetatik egiten dakigu. Badago posturen bat lan-katearen barruan emakumerik jartzen ez dutena, baina bertzenaz igual-aritzen gara emakumeak. Kamiona kargatu behar bada ere, ez dute begiratzen emakumea edo gizona den. Nik frogatzen ahal dut gizonak adina lan egiten duten emakumeak badirela, eta gehiago ere bai. Araza gizasemea nahiz emakumea alferria denean izatena da. Orduan...

#### Aceraliak inoiz ere ez du planteatu produkzioan emakumeak sartzea



Mari Karmen PRIETO  
ACERAIUko langilea

ACERALIAK Zalainen duen lantokian egiten dut lan, bulegoetan. Nik dakidala, Zalain eta Lesakako lantokietan ez dago neska bakar bat ere makinetan lan egiten duenik, gizonak bakar-bakarrik. Gaur egun, gainera, ofizinetan ere nagusi dira gizonak. Nik uste dut fabrika honetako lanpostu gehienetan emakumeok lan egiten ahal dugula berdindin. Badira pisu haundiak erabili behar diren makina bat edo bertze, eta horietan agian ez, baina gehienetan lasai ederrean aritzen ahal zen emakume bat gizonaren orde. Aunitz aldiz pentsatzen dut ea zergatik gertatuko ote den bereixketa hori, eta uste dut diskriminazio nabaria dagoela alde horretatik. Bertze kontu bat da, mekanika ikasi duen emakumerik ez dagoela, edo hori uste dut behin-behin. Baina erranen nuke, enpresak ez duela sekulan planteatu fabrikatik emakumeak sartzea. Orain dela urte batzutatik honat, emakumeen lanpostuak saihestera jotzen dute gehienbat, fabrikatik zer erranik ez, baina baita bulegoetan ere. Azken boladan kontratatutako guziak gizasemeak dira.

#### Emakumeak askatasuna behar du, bulegoan ez bada buzoarekin, lan egiteko



Jose Mari ARRIBILAGA  
ELAko ordezkaria

Lan munduan, emakumea beti aritu da gehiago administrazio kontuetan. Ez dakit zergatik, baina emakumeak bulego-lanarekin lotu dira batez ere. Nere ustez, ordea, emakumeak aukeratzeko askatasuna behar du, bulegoan ez bada buzoarekin, lanean aritzeko. Urteetan gauzak horrela izan badira ere, pentsatzen dut orain gauza hauek aldatzen ari direla poliki-poliki. Lantegietan ez hainbertze, baina zerbitzu sektorean emakumeak gizonak bezalaxe egiten du lan; errate baterako, lardingobentatan, emakumeak gizonen pare dira. Langabeziaren aferarekin, gainera, badira kasuak etxeko soldada bakarria emakumeek eramaten dutela. Orain, 35 orduen kanpaina honekin ez dugu bereixketarik egiten gizon nahiz emakume. Hala ere, berdintasunaren gaiak lehentasuna du horren aldean. ELA sindikatuaren aldetik badago emakume bat bereziki eskubide berdintasunaren alde lan egiten duena. Batez ere, emakumea kontzientziatu beharra dago, gaur egun gizartean bertze pertsona bat dela, sexuari begiratu gabe.



ttipi-ttapa  
fundazioak  
Europako  
Batzordearen  
dirulaguntza  
jaso du

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara  
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

## IRAKURLEAK MINTZO

**Xorroxin Irratiaren azalpenak**

Xorroxin Irratiak, azken bo-ladan orrialde hauetan irra-tiari buruz agertzen ari diren idazkiak direla eta afera honen inguruan gertatu dena argitu nahi du.

Lizentzia banatzearen berri izan bezain laster Jose Luis Etxegarai Lesakako alkate-arekin hartueman izan genuen; guk, genuen informazioa eskeini, eta Lesakako Udalak ematen ahal zigun laguntzaren inguruan mintzatu ginen. Alkateak, bere partetik, Nafarroako Gobernura informazio eske joanen zela eta Xorroxinek behar zuen laguntza guztia emateko prest agertu zen. Ondorioz, Xorroxinek mozio idatzia bidali zuen Lesakako Udalera, solastutakoa praktikara eramateko asmoz. Idatzi horretan 3 eskaera agertzen ziren: 1. Publikoki apos-tua egitea Xorroxinen alde, euskalduna eta bertakoa delako. 2. Irrati emisioak gauzatzeko Xorroxinek behar zuen laguntza emateko prest egotea eta 3. Lizentzia eskuratzekotan Lesakako Udalak irratia egoitza eskeintzea.

Lesakakoa, ahoz hartutako konpromezuaren arabera, lotua ikusi genuenean, eskualdeko bertze instituzio eta elkarteengana jo genuen. Hor daude EA, HB edo UPN-ko kideekin izandako solasaldiak lekuko. Bilerak hauetan ateratako konklusioen arabera, eskualde osoko Udaltara laguntza eske joateko erabaki genuen.

Denbora joan ahala, mozio horien emaitzak jasotzen hasi ginen, baita komunikabi-deetan agertzen ere. Baina, gure harriduraz, denboran lehendabizikoa baitzen, Lesakan ez da horrelakorik gertatzen. Berriz ere Jose Luis Etxegarai jaunarengana jotzen dugu eta gurekiko zuen lehendabiziko jarrera erabat aldatu egin duela kontura-

tzen gara, hots, Lesakako alkateak ez du hain garbi ikusten Xorroxin Irratia bertakoa denik, ez du uste Lesakari inongo mesederik egiten ahal dionik, ez du Xorroxin kapaz ikusten Lesakatik inongo emisiorik egiteko... hori gutxi bali-tzirik irratizentzi leihan dau-den bertze eskaleek ere be-regana jo dutela erraten digu. Hala ere, mozio-idatzia aldatzen bagenuen, Udaltzaren pasatzeko prest zegoela agertu zigun, hori bai, egoitzarena ezta aipatu ere ez egitea eskatzen zigun.

Hau dena jakinda, eskualdeko bertze Udal guzietara bidalitako idatzi bera igortzen diogu Jose Luis Etxegarai Jaunari (2. idatzia), (bertan akats nabarmena zegoen eta horrela aitortzen dugu: mo-zioa Berako Udalaren izenean joan zen). Paraleloki, komunikabide desberdinetatik deia egiten digute atxiki-pen kanpainaren berri jakiteko asmoz eta gure aldetik gertatzen dena kontatzen diegu, hitz gutxitan. Jose Luis Etxegarai EAJko alkateak Xorroxin Irratiarekin hartutako konpromezua (horrela uste baikenuen) hautsi egin duela (Xorroxinek ez du bertze komunikabideek erabiltzen dituzten erizpideak baloratu beharrik). Eta afera akiztatu idatzia Udaltzara heltzen da, denok dakigun emaitzarekin (EAJko zinegotziek kontra eta gainerakoak alde).

Gure aldetik ez dugu horren inguruan baloraziorik egin behar, hori bai, zabaldu du-gu, zabaltzen ari gara eta zabalduko ditugu Jose Luisek hartu duen jarreraren kontra-ko nahiz aldeko iritziak (be-rak honen inguruan ez du deus erran nahi, Xorroxinen bederen).

Aipatu beharra dugu, bertzal-de, emisio baimena lortu ala ez, bai Lesaka nola Bortzi-riak eta eskualdeko herritarrendako lanean segituko du-gula, uste baitugu gure 18

urteko esperientziak nahiko erakutsi digula. Ikasi dugun gauzen artean bat azpimarratu nahi genuke: agintari-herriak nahi duen arte jarraitzen dute, gure kasuan Jose Luis Etxegarai antzeko aunitz bazterrean gelditu dira. Xorroxin, berriz, dituen eta izango dituen akats guz-tiekin aitzina doa, eta, herriak nahi arte behinpin, aitzina segituko du, zergatik? (Lesakar batek ederki aipatu duen bezala) euskalduna hitza eta bertako bihotza due-lakoz.

Gure aldetik argitu behar-koa argitua gelditu da. Es-kermila denei eta beti arte.

XORROXIN IRRATIA

**Emakumeek, zergaitik errudun?**

Hementxe gaude XX. mende bukaeran, XXI. mendearen hasieran. Bati baino gehiagori zenbaki hauek datu hutsak irudituko zaizkie, beste batzuei holako ideiak bururatuko zaizkie: teknologia, aurrerakuntzak, askatasuna, eta beste hamaika utopia eta aldaketa. Zoritxarrez esan behar dugu, beste gauza asko bezala, gizakiaren aurrera egiteko asmoarekin batera gaixotasun bat edo zentzugabekeri bat mantendu dela gure gizartearen.

Askotan esaten dugu: ederki bizi naiz, ia-ia ez zait deus falta, bizia aurrera ateratzeko adina badugu, osasuna ez zaigu falta eta aurrera... baina gero, ezin ditugu ulertu gizonaren jokaera batzuk. Inoiz baino gehiago pentsatu nahiko genuke gizonen eta emakumeen eskubideak parekatuta daudela. Badi-rudi gauzak ongi dihoazela, baina gero ulertezina egi-ten zaigu emakumeen kon-

trako erasoak gertatzea, ezin dugu sinetsi. Eta izan badi-ra. Gure inguru hurbilean ja-san ditugunean gainera zer pentsa jartzen gaituzte.

Nola utzi alde batera senti-mentuak eta zentzutasunez jokatu? Zergaitik eskatzen zaigu beti ixiltasuna? Zerga-tik aztertu behar dugu edo-zein emakumeen aurkako eraso bat inguruko beste ger-taerak kontuan hartuz? Era-so bat izatea ez al da berez arrazoi nahikoa. Hori salatze-ko zenbat arrazoi behar di-la orduan? Galdera gehiegi dira segidan, erantzunik ga-be. Nik behintzat ez diet eran-tzunik aurkitzen eta zaila egi-ten zait sinistea, arrazoirik egon daitekenik emakume bat jo dutela ulertzeko.

Garai bateko emakumeak ja-sanen zituzten erasoak ezin ditugu ulerkerik bihurtu, bai-na, denboraren zentzua gal-duko bagenu, inola ere ez nintzen 1998. urtean koka-tuko. Eta ez kapritxoz, edo modan dagoelako horrelako erasoak salatzea, baizik eta, mundu honetako gauza as-kok eragiten badigute tristu-re edo barruko amorrazioa, bat zera da, indarkeriaz ez gaituztela menperatuko. Emakume bat jotzen edo bor-tzatzen duen gizona ez da gizakia, eta gutxiago, bere inguruko pertsonak babes-ten edo onartzen badute egi-ten duena.

Nerea ez da diskurso femi-nista bat. Gutxiago, gizonen kontrako hitzaldi bat. Izaten dira bizi honetan, hunkituta uzten zaituzten gertaera batzuk, eta horixe da ni gehien kezkatzen nauena.

Era berean, konturatzen naiz gizarte honek ez digula era-kosten gure sexuak ez di-ren pertsonak errespetatzen. Agian, etxean erakutsi behar ziguten eskubideak denentzako direla berdinak. Ber-dintasuna, errespetoa... bai, hitz politikak, baina beti beza-la hortan gelditzen dira, eta erasoak egiten jarraitzen du-

te edozein etxetan edo lanto-kietan, edo herrietan.

ERASORIK JASAN EZ DUEN

EMAKUME BAT

**Lesakako Gazte Asanbladaren eskertza publikoa**

Maiatzaren 1ean burutu ge-nuen Gazte Eguna dela eta ezinbertzekoa iruditu zaigu zuen laguntzaren eskerro-nez honako gutun hau idat-zea, izan ere, zuren lagun-tzarik gabe ezinezkoa izan-go bailitzaiguke aipatu egun hori behar bezala antolatzea, are gehiago holako egun bat prestatzeak dakarren lan es-kergera kontuan hartuz. Be-raz, eskertu nahi genituzke Etxarte eraikuntzak, Rafael Eneerrea, frontoiko ar-duradunak (Begoña eta Kas-tro), Beti Gazte elkarte, Mi-kel Ubiria, Eloi Lopez, Etxe-ni, Martin musika eskola, Na-farroako bertsozale elkarte, Dolores eta Manolo, Mikeli, bertsolariak, trikitilariak, mu-sika taldeak, ttipi-ttapa, Xo-rroxin, Larrakaitz txaranga, Jon Abril, ostateko laguntzai-leak (Arrano, Koskilla, Ka-ttu, Maula, Sasaki Zar, Sasaki Berri, Atxaspi eta Haizegoa), Goizuetako Udaletxea eta modu batean edo bertzean laguntzeko prest azalduta-ko guztiei. Seguru norbaiten izena ahan-tzi dugula, izan ere herri guztiaren laguntza jaso baitugu. Beno, ia guz-tiarena, betiko traba batzuk jasan behar izan baitugu, PNVrenak, Etxegarai alkate 'jaunarenak' hain zuzen, de-na den herrian sortutako gi-ro paregabeak animaturik ai-tzineraren segitzeko prest gau-de. Beraz, adi egon hurren-go ekitaldietarako eta anima zaitezke parte hartzen, ate-ak zabalik baitaude. Bertzerik gabe, ongi pasa-tuko zenutelakoan, mila es-ker.

LAGA

(LESKAKO GAZTE ASANBLADA)

## Administrazio publikoetatik azken lau urteetan jasotako dirulaguntzak (Pezetatan)

	1995		1996		1997		1998	
	Eskatu	Hartu	Eskatu	Hartu	Eskatu	Hartu	Eskatu	Hartu
<b>UDALAK</b>								
Arano	-	-						70.000
Areso	140.655	20.000	147.224	20.000	140.777	0	141.505	?
Baztan	3.120.694	0	3.266.419	500.000	3.123.393	500.000	3.139.545	?
Bortziririak <sup>(1)</sup>	3.589.030	3.589.030	3.756.624	3.589.030	3.589.040	3.589.040	3.610.500	3.610.500
Goizueta	400.327	250.000	419.021	250.000	400.673	250.000	402.745	300.000
Leitza	1.324.633	900.000	1.386.481	900.000	1.325.779	900.000	1.332.635	900.000 <sup>(4)</sup>
Malerreka <sup>(2)</sup>	2.298.401	1.150.000	2.405.728	1.000.000	2.300.389	1.000.000	2.312.285	1.229.904
Sara	-	25.000 <sup>(3)</sup>	-	25.000	-	25.000	-	?
Urdazubi	216.393	0	226.498	50.000	216.580	50.000	217.700	50.000
Zugarramurdi	140.655	10.000	147.223	20.000	140.777	0	141.505	?
<b>Nafarroako Gobernua</b>								
	8.000.000	8.000.000	8.200.000	8.200.000	8.200.000	8.200.000	8.200.000	7.300.000 <sup>(4)</sup>

<b>DATU OROKORRAK</b>	• 1998ko Aurrekontua	31.573.990
	• Sarrerak:	
	- Harpidetzak	950.000
	- Publizitatea	11.000.000
	- Nafarroako Gobernua	8.200.000
	- Diferentzia (Udalak)	11.298.630
	- Bertze laguntzak	125.360

<sup>(1)</sup> Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak emandakoa  
<sup>(2)</sup> Malerreka Zerbitzu Mankomunidadeak emandakoa  
<sup>(3)</sup> 1.000 libera emankatu du Sarako Herriko Etxeak  
<sup>(4)</sup> Hitzek emandako datua, beraz, ez ofiziala.

# Administrazioaren laguntza behar du TTIPI-TTAPAK etxe guzietara ailegatzeko

**b**i dira, nagusiki, TTIPI-TTAPA aldizkariaren diru-iturriak: alde batetik hamabostekariak berak sortzen dituen irabaziaz (publizitatea, harpidetzak...), eta bertetik, instituzioek ematen dituzten dirulaguntzak (Nafarroako Gobernua, Udalak, Mankomunidadeak...).

Bistan denez, urteko kontuak prestatzeko gastuak eta diru sarrerak kalkulatzeko da lehenbiziko lana. Gastuak sarrerak baino haundiagoak izaten direnez, diferentzia udalei eska-

tzen zaie ordaintzea, herri bakoitzak duen familia kopuruaren arabera: Defizita / familia kopurua = udal bakoitzari eskatzen zaion diru kopurua.

### Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak bakarrik emankatu du eskatutako guzia

Eman, ordea, Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak bakarrik eman du urtero eskatutako guzia. Badira zenbait urtez sosik eman ez duten Udalak. Bertze Udal eta Mankomunidadeek beraien baliabideen edo borondatearen neurriaren ematen dute, baina hauen

artean ere badira 'kobratzen hasi beharko duzue!' diotenak ere. Gure ustez, ordea, arrazoi gehiago dago ez kobratzeko kobratzen hasteko baino.

### Kobratuko balitz, jende gutiagok leituko luke

Ez dugu ahaztu behar euskara indartzea dela TTIPI-TTAPAREN helburua. Euskara ez galtzekotan, euskarak bere osasun normala berreskuratzeko, herritarrei TTIPI-TTAPA bezalako gauzak dohainik eskaintzea nahitaezkoa da. Zortzi urtetan 1.500 harpidedun izate-tik 6.800 izatera pasatu gara. Hori kontent egoteko motiboa da, baina ez gaitzen itsutu.

Zoritxarrez, leitzeko ohitura ttikia dugu gehienok, eta ttikiagoa, euskaraz bada. Horregatik, zail egiten zaigu leitzeko diruz ordaintzea. TTIPI-TTAPA ere ordaindu behar izanez gero, jende askok ez luke hartuko, eta jende horiek guziek, ez lukete euskaraz leituko.

Gure ustez euskara eta kulturari lagundu egin behar zaio. Zergatik, orduan, TTIPI-TTAPA kobratu? Arrazoi horiengatik ez dugu aldizkaria kobratu nahi. Hala ere Gobernuak eta Udalek laguntza ukatu egiten dutela? Orduan ikusiko dugu. Bainan bakoitzak garbi eduki dezala egiten duenaren arazoia eta erantzunkizuna. ■





**Joxeramon AMORÓS**  
Arantzako alkatea

## Herri batzuetan bertzeetan baino «debaldeago» hartzen dute TTIPI-TTAPA

Eskualde guzian TTIPI-TTAPA etxean debalde hartzen badute ere, herri batzuetan «debaldeago» hartzen dute. Lesakako lagun batek eta Elizondoko batek ez dute berdin «ordaintzen», diskriminazio bat dago.

Eta hori salatzekoa da. Guk pentsatzen genuen inguruko Udalek ere finantziario sistema onartu zutela. Hori teoriaran, zeren eta dirua ematera-koan ez dute hain zuzen jokatu. Etxe guzietara dohainik iristea eus-

kararen normaltasunerako bultzada haundia da. Zerbait ordaindu behar izanez gero, zabalpen hori murriztuko litzateke. Gai honetaz soslasterako bilera deialdiak ere luzatu diegu bertze Udalei, baina ez dira arrakastatsuak izan. Eskualde batzuetan hurbilago ikusten dute produktua,

baina TTIPI-TTAPA hedatua da eskualde osoan eta aunitz erabiltzen da. TTIPI-TTAPAK aurrekontu batzuk aurkezten ditu eta sarrerak ez badira ailegatzak sartu, tresnak erosi, jernalak ere zigortzen dira.... Dena den, produktuari kalidadean ez da nabari.



**Imanol LARRAÑAGA**  
Berako zinegotzia

## Herri bakoitzean aldizkaria hartzen duenak presioa egin behar dio Udalari

Herriko Etxe guziek lehenbat batzuk markatzen dituzte dirulaguntzak ematera eta kasu honetan, garbi ikusten da zenbait udal erakunderentzat euskara eta kultura ez direla lehen mailako beharrak. Orain

arteko esperientzia ikusita, zaila ikusten dute gure eskariari kasu egitea. Nere ustez beharrezkoa izanen litzateke herri bakoitzeko euskararen aldeko taldeek edo aldizkaria gustora hartzen duten pertsonak ber-

terrik gabe, presioa egitea beraien udaletan. Udal batzuk jendearekiko zerbait ordaintzeko eskatzea errana dute dagokioneko, baina horren hurrengo pausua, 'kobratzen duzue, ez dizuegu dirulaguntzarik emanen' izanen zen. Hori ez da bidea, TTIPI-TTAPAK duen helburutik ahalik

eta jende gehienak euskaraz leitzea urrutzen baita. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, bere dirulaguntzak banatzean garrantzi berezia ematen dio irakaskuntza eta komunikabideei, horiek dira bi ardatzak. Gainerako instituzioek ere bide hori segitubehar lugete.



**Imanol ITURRIA**  
Etxalarko zinegotzia

## Ez ote litzake errezago denontzat finantziarioari denok helduko bagenio?

Hizkuntza bat ez da bat-batean normalizatzen. Horretarako urrats aunitz eman behar dira, haundiak batzuk (egiazko euskal eskola sortu eta haziz, adibidez) eta ttikiagoak bertzeak, hau da, pertsona harteko har-

tu emanetan, erakunde publikoekikoetan, komertzialetan... Euskarari begira, koxkarrik handienetakoa idatzizkoetan dago eta hori gaitzizkoetan dago aukera bat irakurtzea da. TTIPI-TTAPAREN lanari esker aukera ederra

ikusten dut, eguneroko eta lekuan lekuko gaiak plazaratzen baitizkigu, atzendu gabe nola jasotzen dugun. Baina proiektu hau aitzinera badoa ez dezagun pentsa bakarrik doala, talde baten lanari esker baikik, eta egiazki euskararen normalizazioaren alde bagoaude eman deza-

gun, denok, urrats bat eta eman diezaiogun beharrezkoa duen babesa, erakunde publikoetatik hasiz. Beharrezkoa duen sustengu ekonomikoan dagokigun neurrian parte hartu behar dugu, hamabostekaria banatzen den esparriuan. Eta hori, agerian gelditu den bezala, ez da horrela.



**Miguel Angel RETEGI**  
Igantziako zinegotzia

## Jendeak hagitz gustora hartzen du TTIPI-TTAPA eta ez bakarrik debalde delako

Historia pixko bat eginez, TTIPI-TTAPA hasieran kobratuz banatzen zen, eta uste dut ez zela 700 aletik pasatu. Proiektu berria, aldizkaria hamabostero dohainik banatuz, aurkeztu zenean Bortzirietako Euskara

Mankomunitateak argi ikusi zuen erakundearen bultzada behar zuela. Inguruko udal erakundeen laguntza ere eskatu genuen. Zerbait ematen dute, baina ez behar den neurrian. Urtetan debalde banatzen dela ikusi

eta ez dute gehiago ordaintzeko beharrik ikusiko. Denon artean bultzatu beharreko zerbait da TTIPI-TTAPA, inor ez baitago soberan euskara bultzatzeko orduan. Beraz, eskari bezala zera erranen nuke: Bortzirietako Mankomunitatearen gurdira igain daitzelaz bertze udalak. TTI-

PI-TTAPAK lan ikaragarria egin du euskararen normalizazioan, euskaraz leitzeko ohitura zabaldu eta beldurra kendu baitu. Jendeak hagitz gustora hartzen du eta ez bakarrik dohainik delako, kontu interesgarriak ekartzen dituelako baikik. Ez dago dena egina, baina bidea ireki da.



**Jose Luis ETXEGARAI**  
Lesakako alkatea

## TTIPI-TTAPA denena dela onartu eta bulkaldia emateko tenorea da

Bortzirietako Mankomunitateak ematen duen maila berean bertzeak ere laguntza eman behar lugetela iruditzen zait, bertzenaz ez du aldizkariaren finantziarioak ongi kuadratzatzen. Guk TTIPI-TTAPA in-

dar guziarekin bultzatzen dugu eta iruditzen zaigu aldizkari hagitz inportantea dela eta publikatzen segitu behar duena, ahal den bezala. Horregatik, bertze Udal eta Mankomunitateei eskatzen diegu ordain de-

zatala dagokiena. Lehenbiziko eskaera hori izanen litzateke, baina ez badaude horretan ados, bertze neurrien batzuk hartu behar lirateke, nere ustez. Neurri hauek TTIPI-TTAPARI kalte egingen liekete eta ez litzaidake gustatuko hori gertatzea. TTIPI-TTAPA denena dela onartzeko

tenorea da eta denok eman behar diogula bulkaldia. Zenbait Herriko Etxe eta alderdi euskararen alde daudela erran erratan dute jende aitzinean, baina gero ez dute ekonomikoki aldizkari hau laguntzen, eta hori nahiko larria iruditzen zait. Gauzak erran bezala egin behar dira.

## Nafarroa osoan bezala, inguruko erizainek zerbitzu berriak eskaintzen dituzte

Asistentzia, osasun zaintzea era eritasunei aurre hartzea lantzen dituzte

TTIPI-TTAPA

Malerreka, Bortzi-riak eta Baztango erizainak elkarrekin lanean aritzen dira jendeari eskaintzen dioten zerbitzua hobetzeko. Horretarako, maiz xamar bilerak egiten dituzte, zonaldeko erizainak bilduz. Osasun Zentro bakoitzean zerbitzu desberdinak eskaintzen zituztela ikusirik, erizainen lana hobetzeko eta Nafarroa osoan lanirizpide berak hedatzeko intentsioarekin Iruñean ere egin dituzte bilera.

### «NORBERA BERE OSASUNAZ ARDURATZEA DUGU HELBURU»

Erizainen erranetan, jendeak ez du beraiek ematen duten zerbitzuen berri. «Lehenago praktikantearekin nahasten gaituzte. Praktikantea mediku baten agindura zegoen eta jendeari eritasunean bakarrik laguntzen zion. Gaur egungo erizainek, hori egiteaz gain, bere funtzio berezia dute, jendeari osasuna zaintzen



Eskualdeko erizainek egiten dituzten bileren helburua zerbitzua hobetzea izaten da

Argazkia: Karmele

laguntzea, eritasunaren prebentzioa egitea eta pertsona bakoitzaren familian eta inguru sozialean sartu eta lan egiten» diote. Beraiek ematen dituzten ikastaroen bitartez, «norbera bere osasunaz arduratzea dugu helburu, gure burua osasunez zaintzen ikastea, alegia».

Eskualdeko erizainek diotenez, hiru arlotan eskaintzen dute laguntza. Alde batetik

asistentzia arloan, bakoitzaren osasun beharretan. Betiko zereginetan laguntzeaz gain (txertoak, tentsio hartzea, odola ateratzea...), istripuetan, bizi-krisietan, harreman arazotan, sustantzien gehiegizko kontsumoan, hiltzorian edo dolutan, eridagoen senidea zaintzen erakusten eta bertze batzuetan ere laguntzen dute.

Bertzalde, osasun in-

dartze edo zaintze arloan ere ari dira. Arlo honetan, eritasuna kronikoa bada, ahalik eta hobe biekien bizitzeko ohitura aproposak erakusten edo jendearen ohiturak osasungarriagoak izateko laguntzen aritzen dira, bertzeak bertze.

Prebentzioa edo eritasunei aurre hartzeko arloan, azkenik, etxe eta karrikako istripuen prebentzioa, beheitikoak eta idorretatik zaintzen,

eritasunen kontrako txertaketak edo pertsonaren adin ezberdinetan gerta daitezkeen eritasunen prebentzioa lantzen dute.

### «ERI EZ EGONDA ERE LAGUNTZA EMATEN DUGU IKASTAROEK BIDEZ»

Erizain izenez eza-gutu arren, eri ez gaudenean ere laguntzeko prest azaldu dira, «bai pertsonalki, bai taldeka, Osasun Zentroetan Osasun Hezkuntzarako antolatutako ekintzen bidez». Erlajazio ikastaroak, erditze prestakuntza, tentsio altuko taldeak, diabeteko taldeak, nerabeen heziketa sexuala, ezinduen zaintzaile taldeak, menopausian dauden emakumeen taldeak, haurren ohitura sanoak eta bertze talde edo ikastaroak sortzen ahal dira, bai erizainek beraiek emanak edo zentroko profesionalekin batera. Erizainekin hauek eta bertzelakoak argitzeko, beharrezkoa da aitzinetik telefonoz ordua eskatzea Osasun Zentro edo herrietako kontsultetan.

**Xergil**  
ileapaindegia

948631462 • Altzate I • BERA

Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo zgarbitu nahi baduzu, deitu!  
Gu arduratuko gara horretaz.  
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

**BERA**  
DESINFECCIONES

948630155  
BERA

**GOYA**

JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK

Altzate, 5 • 948630083 BERA

**Dia** %

Autozerbitzua  
deskontua

**GRUPO ZURICH**

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 — BERA — 948 630763

**ZALAIN**  
JATETXEA

Zalain Auzoa  
948631106  
BERA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

**Boda eta banketeak ematen dira**

**Hamabostero ofertak**

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6  
948631403 • BERA

# Gipuzkoako Liga irabazi dute berriz Gure Txokoako neskek

Azken lau urteetan hiru aldiz eskuratu dute titulu hori

ASIER GOGORZA

Joan den urteko arrakasta errepikatu du Gure Txokoak aurtengo denboraldian. Duela bi aste Urretxuren kontra 0 eta 3 irabazi ondoren, Gipuzkoako ligako txapelkunak bihurtu ziren matematikoki.

Erran behar da Zumarragaraino zaletu ugari joan zela futbolariak animatzera, autobusean nola kotxeetan. Garaipen honek Liga Nazionalera goitzeko aukera ematen dien arren, iaz uko egin zioten mailaz aldatzeari, jokalaririk gehienak ikasten eta lanean ari direlako. Izan ere, Zaragoza, Bilbo eta Tuteraraino joan be-



Euskadiko Selekzioarekin jokatzeke lau neska deitu dituzte aurtten.

harko baitzuten partiduak jokatzerara. Aurtten arazo berdinak dituzten arren, baikor ageri da Joxe Luis Altzugarai en-

trenatzaileak: «*nere ustez aurtten igoko gaituk, baina bilera bat egin behar diagu hori erabakitzeko*» dio Bertzalde, Joakintxo lantzik entrenatzen

dituen 16 urtez beheitiko neskek Kopan garai-le suertatu dira Kontxako hondartzan. Finalean 2 eta 1 nagusitu ziren Eibarren kontra. Ligan, berriz, laugarren sailkatu dira.



## Mugaz Gain antzerki jardunaldiak

Joan den astean izan ziren emanaldi guziak. Argazkian ageri diren Ricardo Baroja Eskolako ikasleek "Farre egiten ez zuen erregea" obra antzeztu zuten, eta Labiaga Ikastolakoek berriz "Pedro eta Otsoa".

## Altzateko bestak asteburuan

Asteburu honetan ospatuko dira Altzateko bestak, hilaren 5etik 7rat. Ortziralean arratsko 8etan eta larunbatean arratsaldeko 4,30etan Pilota Goxo txapelketako partidak jokatuko dira Eztegarra pilotalekuan. Bertzetik, Berako I. Herri Lasterketa eginen da igandean Matzadan, goizeko 10etatik aitzinera. Duela 10 urte inguru Berako bestetan egiten zen herri lasterketa nolabait berreskuratzeko asmoz antolatu du Gure Txokoak proba hau. Igande

goizean bertan zaldi kontzentrazioa izanen da Altzaten.

Musika, berriz, denetatik pixkot izanen da aukeran. Ortziralean hiru kontzertu izatekoak dira ostatueta. Gaueko 9,30etan 'Jexuxmai & Noizbehinka' Zizkan, segidan 'Ohar' rock taldea Bidaxkan, eta ondoren 'Jamila' abeslari kubatarra ariko da Puin. Larunbatean 'Tapunto' txaranga ibiliko da Altzaten barna, eta igandean 'Kristina eta Amaia' taldearen txanda izanen da.

## flash

### Hitzaldia

Ekainaren 5ean, ortziralean honetan hain zuzen, "Inhabilitazioa" gaiaren inguruko hitzaldia izanen da Iamotenean. Arratsko 8,30etatik aitzinera.

### Bertso saio berexia...

eginen dute Jon Maia, Igor Elortza, Iñigo Olaetxea eta Aitor Mendiluzek ekainaren 12an Berako Kultur Etxean. Erran behar da bertsolariak Josu Goikoetxea gidolariaren aginduetara ariko direla kantuan. Arratsko 9etatik aitzinera.

### Ibardineko...

arau subsidiarioak aldatzeko proiektuari 12 alegazio aurkeztu dizkiote bentetako nagusiek. Udalak, berriz, alegazio horietako 7 bakarririk hartu ditu kontuan.

**KRISTALDEGI ZERBITZUA ETXERA**

(zonalde osoan)

☎ 929 443 765 • BERA

**ROMANO DEKORAZIOA**

Ekainean

% 25ko merkealdia artikulu guzietan

☎ 948630941 • Legia, 1 • BERA

**ROMANO PINTURAK**

Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxo eta sintasola.

☎ 948630941 • 948631137 • BERA

**Errekalde ostatua**

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tf.noa: 948630259 - BERA

# Urrezko Adina elkarteko bazkideen besta ekainaren 12an

Urrezko Ezteiak aurten ospatzen dutenei omenaldia eskainiko zaie

AITOR AROZENA

Datorren ortziralean, ekainak 12, urteroko Anaitasun Besta ospatuko dute Urrezko Adina elkarteko bazkideek. Eguerdiko 12etan, adineko txistulariak aterako dira, Santiago Irigoien zuzendaritzapean. Agintari eta gonbidatuei erretiratuen elkartean ongi etorria eskaini ondotik, elizara abiatuko dira, Meza Nagusia aditzera. Meza girotzeko, Guillermo eta Larrane kantuan, Txoperena organua joz eta Santiago eta Rekondo txistua jotzen ariko dira. Hauekin batera, Luis Olaetxea Urrezko Adina Elkarteko bertsolariak ere parte hartuko du. Gero anaitasun bazkaria izanen da frontoian. Bazkalondotik, aurten Urrezko Ezteiak ospatzen dituztenak omenduko dituzte. Agustin Irigoien eta Juana Iriarte, eta Saturnino Parra eta Justa Etxeberria izanen dira gainerako bazkideen omenaldia jasoko dutenak. Besta bukatzeko, 'Zeus' taldearekin dantzaldia eta TB zozketatuko da azaldu-takoen artean.

1.750 pezetan salduko diren txartelak ekainaren 6a baino lehen bildu behar dira.



## Magia eta solasaldia Egunkariaren Astean

Joan den asteazkenean 'Txan Handiaren' magia ikusteko aukera izan zen ikastolan, Euskaldunon Egunkariak Bortzirietan antolatutako Astearen barnean. Biharamonean, herritarren partehartzea komunikabideetan gaiari buruz solasean aritzekoak ziren Nafarkariako Irene Arrizurieta, Xorroxingo Mari Karmen Irungarai eta TTPII-TTAPAKO Joxemanuel Irigoien. Baina jendea agertu ez zenez, kultur ekitaldiok egin gabe gelditu ziren. Argazkia: Aitor

## Lesakako IV. Itzulia ekainaren 21ean egingen da

Ekainaren 21ean egingen da Beti Gazte elkarteak laugarren aldiz antolatutako Lesakako Mendi Itzulia. Parte hartzaileek bi ibilbide izanen dituzte aukeran, bata 33 km.koa eta 38koa bertzea. Denak igerilekutik abiatu eta Frain, Piedadea, Unanua, Itsazelaieta, Pagolleta, Elutxa, Bian-

ditz eta Aritxulegin barna igaroko dira. Ibilbide luzea aukeratzen dutenek, Aiako Harrietara iganen dira, gero San Antonera jausteko. Ibilbide laburra egiten dutenek, berriz, zuzenean San Antonera joanen dira eta, Gardelko eta Banartan barna, herrira jautsiko dira.

Ibilaldian parte har-

tzeko 800 pezeta ordaindu beharko dira (bazkideek 600 pezeta) eta izen ematea igerilekuan egingen da goizeko 6etatik 7,30etara.

Antolatzaileek adierazi dutenez, aitzinetik eskaera egiten duten kirol taldeei bezperan lotarako lekua egokituko zaie. Horretarako astelehen eta ortzegunetan, arratseko 8,30etatik 10,30etara deitzen ahal da 627558 telefonora.

## flash

❖ **Haurren Eguna**  
Igandean zortzi, ekainaren 13an, Haurren Eguna ospatuko da. Irain eta Otxogorrienea Guraso Elkarteek Udalaren laguntzaz antolatutako egunaren ekitaldiak goizean hasiko dira plazan. 11etatik 1etara Karaokea izanen da. Arratsaldeko 3etatik 7etara, konbentuko zelaian gazteluak, karts eta jostetan aritzeko hainbat aukera eskainiko zaie neska-mutikoei.

❖ **Igerilekuetako arduradunak**  
Mikel eta Nerea Iriarte, Maite Mendegia eta Igor Portuk osatutako taldea arduratuko da uda honetan udal igerilekuen mantenimendu eta garbiketaz. Joan den urtean bezala, gai honen inguruan eztabaida piztu zen, EA eta HBk baldintzen artean euskara ez eskatzea salatu baitzuten. Alkateak, taldean denak euskaldunak direla erran zuen eta EAK eta HBk hori baldintzetan ezarri behar dela erantzun zuten.

❖ **Txistorrada**  
izanen da larunbat honetan, ekainak 6, 6etan plazan. Bortzirietako Intsumisioaren Aldeko Taldearen aurkezpen kanpainaren barnean.

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 948 637 127  
**LESACA**

**Lurrindenda**  
Marian  
Etxeberria  
Estetika  
Behoko Plaza 8 • 948637791 • LESACA

**XATURETXEA**  
ZAHAR  
JATETXEA  
Tfnoa: 948637027 LESACA

**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
948627573 • LESACA

**ANA**  
janaridenda  
Bittiria, 41 • 948637944  
**LESACA**

**ETXALAR**

# Aurten ez da Gasna Feria eta eskulangileen erakusketarik egingen

Euskal Telebistan agertu dira zenbait herritar azken asteotan

PELLO APEZETXEA

Udaberriko Kultur Egunen artean, Gasna Feriak toki berezia zuen hartua, hondarraldian. Aurten, eta aurtengoz, gasnagile eta gasna saltzaileek ez dute herriko plaza beteko. Eta ondoan lagun izaten zituzten zur, harri, burdin, hari eta bertze materiallezko eskulanez ere, ez. Hori dena izateko, lan egin behar da, eta, iduri duenez, lanerako jende soberarik ez da agertzen. Solasbidea irekitzen joan da, dagoeneko, herritarren artean gauza jakin ahala.

**ETBko pantailan ikusi ditugu**

Euskal Telebistako pantailan agertu dira, hondarraldian, etxalartabatzuk. Danborieneko Alberto Agirrek ETB2ko lehiaketan har-



Gasna sariak banatzen aurten ikusiko ez badugu ere, horrek ez du erran nahi heldu den urtean ikusiko ez dugunik. Segur datorren urteko gasna feria haundiagoa izanen dela, indar berriz eta gogo berriz.

tu zuen parte. Xoraxuriko Enara Iribarrenek, berriz, ETB1eko *Kili-Kolo* programan. Anttonioren Erretegi edo Asadorean lan egiten duen Madelaine Rosales ere ikusi ahal izan dugu, *Dantzaki* izeneko dan-

tzalehiaketan. Hain zuzen ere, Salsa dantza moldean, lehen saria irabazi du, 100.000 pezeta eta trofeoa.

**Salamankako itzulia egin dute hurrek**

Arantza eta Igantzi-

koekin batera, Landagain Eskolako 6. mailakoek burutu dute Salamankara hasitako bidaia. Salamanka hiriburuan bi egunez ibili ondoren, inguruko zenbait toki eta herri ere ikusteko aukera izan dute,

Ciudad Rodrigo eta Peña de Francia, errate baterako. Baita Portugalen sartu eta erosketak batzuk egiteko ere. Hargitx kontent etorri dira.

**Diapositiba emanaldia**

Ekainaren 13an, larunbata, arratsaldeko 8etan, Ander Olaizola goizuetarrak diapositiba saila erakutsiko du, eskola zaharretan. Alemaniako Oihan Beltzean hartutako argazkiak izanen ditu erakusgai.

**Patinaketa ikastaroa akautu da**

Lau hilabetez patin gainean ibiltzen ikasten aritu dira hogeitau haur. Altxata Kultur Elkarteak antolatua.

**Igerilekuetako lana**

Aurtengo udaldian Irati Lujua eta Ainara Arburuak hartu dute.

«USOA»  
NEKAZARI KOOPERATIBA  
Ganaduarentzat pentsurik egokiena  
Tfnoa: 948635214  
**ETXALAR**

**KOXKILA OSTATUA**

Zarandia, 4 - LESAKA

**MARIXUS Elektrogailuak**  
ENETERREAGA anai-arrebak  
Antena instalazioak  
Zarandia 3, ☎ 948 637070 • LESAKA

**LABEZAR**  
☎ 948631076 • BERA

**HERRIKO OSTATUA**  
Jatetxea  
☎ 635290 ETXALAR

**LEGARRA**  
Legarra, 9 • ☎ 948 637 030 • LESAKA

**IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU**

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

**EROSLE**  
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

**Frexkuena zugandik hurbilago**

Bittiria, 67 - ☎ 948637264

**ZALDO OSTATUA**  
LESAKA

**IGANTZI**

# Igerilekua prest ekainaren 15etik aintzinerak bisitariak hartzeko

Ortziralean izanen da Haurraren Eguna eta heldu den astean eskursioa

OSKAR TXOPERENA

Garaiari dagokion bezala, berri bizkorki ditugu igerilekuaz. Hasteko, iaz bezala, aurten goi udan ere, Amaia Iguzkigurrek eginen du ostatu eta aldagelen zainketa lana, berea izan baita Herrikoetxean aurkeztu den eskeintza bakarra. Bertzalde, ekainaren bi lehenbiziko astetan, astelehen eta ortzegunez, igerilekura sartzeko txartelak hartu ahal izanen dira Herrikoetxean, joan den urteko salneurri beretan. Eguneko sarrerak, ordea, pixka bat altxatu dira. Hauexek dira salneurri berriak: 18 urteko goitikoentzat 400 pezeta, 11tik 18ra bitartekoentzat 200 pezeta eta 4tik 10era 150 pezeta. Azkenik, igeriketa ikastaroak aintzineko urtean bezalaxe, Izaskun



## Eskolako haurrak Salamankako plazan

Begira zer argazki polita ekarri diguten -bertako plaza famatuan ateratakoa- Salamanka aldean egondu direnek. Ezin hobekiago pasatu dutela erran digute gainera, ez baitute nonbait aspertzeko denbora haundirik izan.

Dorronsorok emanen dituela baieztatu digute.

### Eskolako berriak

Eskolako heldu diren berrietaz ere maiz ari gara azken bolada

honetan. Ikasturtea akautzen ariki! Aste honetan bertan, ekainaren 5ean, Haurraren Eguna ospatuko dute eskolan, eta iaz bezala, gaztelu haizatuak izanen dira, aurten eskulan tailerra-

rekin gainera. Heldu den astean, ekainaren 11n, berriz, ikasturte akabilako eskursioa izanen da. Heldu den ikasturteko zenbait berri ere ikasi ditugu. Errate baterako, Ana Irigoien Ez-

**flash**

- ❖ **Bataioak ospatu ziren**  
Eliz ospakizun mordoska izan dugu azken hilabete honetan, baina, bat aipatu gabe utzi dugu, maiatzaren 30ean ospatu zena. Egun horretan bataiatu zituzten Oihan Canabal eta Maria Iantzi. Zorionak!
- ❖ **Asteko 35 lanorduen alde**  
Azkeneko bilkuran bi mozio onartu zituen Udaltzarak. Bata, LAB eta ELA sindikatuek asteko hogeita hamabortz lanorduei buruz aurkeztutakoa, eta bertzea, UEMAK osasun zerbitzuak euskaraz eman behar direla aldarrikatuz aurkeztu zuena.

kernekoa Haur Hezkuntzarako irakaslea izanen da eta irakasle aldetik kopuru berdina izanen dugu, hau da, lau egonen dira lanean egun osoz eta gimnasia eta musikakoa orduka.

<p><b>IKUSMENAREN BERRESKURATZEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Miopia</li> <li>• Bista alfertua</li> <li>• Estrabismoa</li> <li>• Begi lausoak-kataratak</li> </ul>	<p><b>GIHARRE ARAZOAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bixkortzea</li> <li>• Artritria, erreuma</li> <li>• Artrosia, Lunbalgia</li> <li>• Bihurdurak, etab...</li> </ul>	<p><b>MAGNETISTA NATUROPATA</b></p> <p>☎ (943) 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN</p>	<p><b>ONDORIOETATIK INDARTZEKO</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Diabetia</li> <li>• Asma</li> <li>• Larri azaleko alergia</li> <li>• Buruko mina</li> <li>• Zizareak</li> <li>• Oinen izerdia</li> <li>• Prostata, etab...</li> </ul>
<p><b>KONTSULTA ORDUTEGIA</b> Goizez 9etatik 12etara. Arratsalde 2-7etara. Ordua eskatu</p>			

**SAROB**

**okindegia**

**SANDERS** Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**BERRIZATUN S.L.**

Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekaniko  
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantzi Benta • ☎ 948627572 • Faxa: 948637313

**EKAITZA kafetegia**

**GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA**

**Lagunekin elkartzeko toki egokia**

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735 • IRUN ☎ 943622305

**Kulturkari**

**Inprenta lanak egiten ditugu**

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egiten dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzula!

**☎ 948631188**

**ARANTZA**



Plazako arpana saioan herriko hogeitak bat bikotek parte hartu zuen eta Zubietako joaldunak, 'Euskal presoak Euskal Herrira' kalejiraren aitzinetik. UEMA Eguna irudi politak utzi zituen.

Arg: Begoña Lizardi

# Euskaltzale ugari bildu zen maiatzaren 24ko UEMA Egunean

Bostehun lagun inguru bildu zen pilotalekuko bazkarian

ELIXABET ETA GARBIÑE

'Arantzan zer, uskara-raz ler' lemapean ospatu zen maiatzaren 24an UEMA Eguna. Besta giroa eta aldarrikapenak tartekatu ziren herrian. Goiz goizetik hasi ziren kotxeak eta autobusak ailegatzen eta

behar den bezala trafiko bideratu ondotik, herria jendez eta eskulanak erakusteko zituzten postuekin betetzen hasi zen. Eguerdia baino lehen, UEMA osatzen duten 32 udalerrietako ordezkariak solasaldia eskaini zuten plazan, euskararen ofi-

zialtasuna Euskal Herria osoan aldarrikatuz. Hau bukatuta, 'Euskal presoak Euskal Herrira' lemapean kalejira egin zen Zubietako zantzarrek.

TTIPI-TTAPA telebisitak ere bere aurkezpena egin zuen eta herri kirol saioak ikusi ahal

izan genituen. Sokatiran Lesaka eta Areso aurrez aurre aritu ziren eta baita herriko hogeitak arpanlari ere. Bazkalordua iritsi zenean, 500 pertsona inguru elkartu ziren pilota plazan eta arratsaldean Imuntzo eta Belokirekin dantzaldia izan zen.

**flash**

❖ **Lehen jaunartzeak**  
Ekainaren 14an, igandea, izanen dira lehen jaunartzeak. Zortzi haur izanen dira lehen jaunartzea egiten dutenak.

❖ **Eskolako haurren kanpaldiak**  
Ikasturte bukaera ailegatzen ari da eta eskolako haurrak kanpaldiak eta eskurtsioak egiten ari dira uda iritsi baino lehen. Ttikienak Hondarribira joanen dira egun pare bat pasatzera eta bertze talde bat Zarautzera joanen da. Salaman kan ere egon dira ikasle batzuk.

❖ **Bertso afaria**  
izanen da ekainaren 19an, Ekaitza elkartean, Xabier Silveira eta Jon Maia bertsolariekin, Intsumisioaren Aldeko Taldeak antolatuta.



**MARTIKO**

Gure baserrietako produktuk

© 948 630 700 • Fax 948 631 213  
Zalain Poligonoa, BERA

**ODRIOZOLA eta HUIZI**

**ZERRAILGINTZA TAILERRA**

Eztegara 26 • © 948 631244 • BERA

**OKANE**

**HARATEGIA • URDAITEGIA**

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA



**PINTURAS DEL BIDASOA**

Barne eta kanpoaldeak  
Gotelek - Iztukadurak  
Lakatuak - Papereztatzeak  
Lucas Sansiñena 929-416768  
Jose Luis Macayo 970-655785

**Aurrekontuak**  
Loturarik gabe



Pilota plaza berrituaren inaugurazio eguneko irudiak: hasierako ekitaldia, dantzariaren agurra eta alkatea Udaberriko Saria Mikel Goñiri ematen



## Berrikuntzen ondotik, maiatzaren 24an zabaldu zen pilotaplaza

Mikel Goñik irabazi zuen Udaberriko Saria

### JAIONE ETA ALBA

Hainbat hilabetez berritze lanetan aritu ondotik, maiatzaren 24an zabaldu zuten udal pilotalekua. Eguerdian inaugurazio ofiziala egin zen eta ekitaldian udal agintariekin batera, Nafarroako Gobernuak ordezkaririk eta

Doneztebe eta Elgorriagako alkateak izan ziren. Ohorezko aurrekua dantzatu ondotik, zinta moztu zen. Lan honen aurrekontua 40 milioi pezetakoa izan da. Horietatik 12 milioi Nafarroako Gobernuak ordaindu ditu. Ekitaldi ofiziala Ulibeltzak elkartean egindako baz-

kari batekin akitu zen.

Arratsaldean, frontoi berrituan lehen pilotakadak ikusteko aukera izan zen, profesionalen arteko hiru pilota partidurekin. Lehen partiduan Olaizola II eta Goñi IIIk 22 eta 15 irabazi zieten Dani eta Otxandorenari. Bigarren, Udaberriko Saria

zegoen jokoan eta Mikel Goñik 22 eta 15 irabazi zion Asier Olaizolari. Azken partiduan, lau terdiaren barrenean aritu ziren Almandoz eta Apeztegia. Lesakarrak 18 eta 5 irabazi zion aur-tiztarrari.

Pilotalekuak arau berriak izanen dituela jakinarazi du Udalak.

**BEINTZAko**  
**OSTATUA**

© 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN

**GAZTANDEGIA**

**LIZUN** Etxeko  
Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

**Maderas**  
**GOMEN**

**APARAN, S. A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133  
948 451 541  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

- Era guzietako atek, janbak eta reguesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645



**DONEZTEBE**

# Jose txo Ezkurra VIII. Memorialaren finalak jokatu ziren

Maiatzaren 16 eta 17an bederatzi partidu jokatu ziren

**PATXI IRIARTE**

Maiatzaren 16 eta 17an jokatu ziren Jose txo Ezkurraren omenez Txaruta Pilota elkarteak antolatutako txapelketaren finalak. Bi egun hauetan 9 partidu jokatu dira Doneztebeko frontoian.

Sariak Koteto Ezkurrak banatu zituen, txapelketa antolatzen laguntzaile izan diren Doneztebeko Udala, CAN eta Nafarroako Gobernuako ordezkariekin batera. Hona hemen zortzigarren aldi honetako palmaresa:

**Tikiak:** 1. Joanes Errea eta Jon Arretxea. 2. Iñaki Arraztoa eta Unai Barberena. 3. Ioritz Mitxeloren eta Xabier Madariaga. 4. Patxi Istitart eta Ugutz Zelaieta.  
**Umeak:** 1. Jon Sagaseta eta Igor Arregi. 2. Patxi Barberena eta Jose Luis Agesta. 3. Aritz Madariaga eta Asier Goñi. 4. Gaizka Otxandorena eta Joseba Oskariz.  
**Haurrak:** 1. Xabier Barberena eta Gorka Urtasun. 2. Koldo Legarra eta Mikel Iraola. 3. Alain



**Helduen mailako finalistak, Luis Martin eta Patxi Ordoki alde batetik eta Santesteban anaiak bertetik, Atxa epailearekin batera** Arg.: Zaldua

Ezkurra eta Luis Ibarra. 4. Carlos Goikoetxea eta Borja Arraztoa.  
**Gaztetxoak:** 1. Jon Etxenike eta Unai Arraztoa. 2. Javier Eraso eta Santi Arraztoa.  
**Gazteak:** 1. Melo Berho eta Toni Uharte. 2. Aitor Rementegi eta Xanti Ibargarai.  
**Helduak:** 1. Patxi Ordoki eta Luis Martin. 2. Manuel eta Jose Antonio Santesteban.  
 Bertze urtetako finaletan errepikatu den

azken partidu hau izan zen ikusgarrienetakoa eta aurtengoan donez-

tebarrek 22-12 irabazi zieten Zubietako anaiei. Errebantxa hurrengoan!

## Gaztediaren Eguna ekainaren 21ean ospatuko da

Ekainaren 21ean, igandea, Doneztebeko besten aitzin horretan, Gaztediaren Eguna ospatuko da. Ekitaldi nagusia Kros Herrikoia izanen da, baina bertze hainbat kontu ere eginen dira. Kasino elkar-tekoek, sukaldaritza lehiaketa berezia anto-

latu dute larunbatean. Denek jaki berdina prestatu beharko dute: oilo zaharra. Sariak banatuko dira bazkide eta partehartzaileen artean eta gero bazkaria izanen da (ez da zaila menua asmatzea).  
 Herriko Etxeak, giroa alaituko duen mu-

sika eta txaranga jarriko du, seguraski. Jendearen partehartzea espero da. Eta, garai batean bezala, Erreka elkarteak antolatzen duen Gaztediaren Eguna eta asteburua besta egun politik izatea, Sanpedroen prestakuntza gisara.

**flash**

**Belbiretxea aterpea**  
 moldatzeko obra-espeditentea onartu da. Aurrekontua 18.316.278 pezetakoa da eta proposamenak ekainaren 13a baino lehen aurkeztu behar dira Iruñeko egoitzan.

**Ezkerrarekin**  
 Doneztebeko laxoa talde nagusiak 9-7 irabazi zien Donamariako Mingegia, Etxegarai, Migeltorena eta Mendiberri, maiatzaren 16an Bear Zana pilota plazan jokaturako desafioan. Jendearen ikusmina sortu zuen partida honek, doneztebarrak ezkerrarekin bakarrik aritu baitziren. Donamariakoek, berriz, hamar urte zuten guantea jantzi gabe.

**IBARROLA**  
**HAURRENDAKO ARROPA**  
**MERTZERIA**  
 Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

*Harieruz*  
**LENTZERIA**  
 Parrokia 11  
 Tfnoa: 45 01 12  
 DONEZTEBE

**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
**DONEZTEBEN**  
  
**MALDAERREKA, S.L.**  
 24 ordutako zerbitzua  
 Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
 Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
 Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

**ETXANDI**  
**TXOKO**  
**jatetxea**  
 Bazkari, afari eta gosariak  
**ITUREN**  
 ☎ 948 450 491

**MALERREKA**

# Trinidad Eguna ospatuko da ekainaren 7an Mendaurren

Iturengo Udalak 85 milioi pezetako aurrekontua izanen du

IBAN ISASI

Trinidad Eguna igande honetan, ekainaren 7an, ospatuko da Mendaurren. Aspaldiko ohiturari segituz, Mendaur inguratzen duten herri guzietatik eta Iturendik berexiki, hainbat lagun hurbilduko da mendi kaxkora. Mezak, urtero bezala, goizeko 9etan eta 10etan izanen dira Mendaurko baselizan.

Bazkaria antolatu du te Iturengo gazteek Mendaurko urtegi, eguraldiak laguntzen badu bederen. Izena emateko, herriko ostatueta joan behar da. Gainerakoek ere aurkituko dute otordua presatzeko xokorea bat.

Goizeko erromeri giroari segida emanez, Iturengo plazan, atsaldoko 7etan dantzaldia izanen da Gaubela taldearen eskutik. Beraz, besta berandu arte luzatuko dela erraten ahal da.

## Leitza-Donztebe errepidearen zati batzuetan zenbait moldaketa eginen dira

Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamenduak Leitza eta Donztebe lotzen dituen NA-170 errepidearen zenbait tartetan moldaketak egiteko proiektua onartu du.

Obraren aurrekontua 86 milioi terdikoa da eta guzira 11.800 metro moldatuko dira, lau zatitan banatuta: 19,180 km.tik 28,2 km.ra; 30,8



Urtero bezala, jendetza handia espero da igande honetan Trinidadeko ermitan Artxibokoa

## 85 milioiko aurrekontua izanen du Iturengo Udalak

85.795.432 pezetako diru sarrera-irteerak izanen ditu aurreko Iturengo Herriko Etxeak, azkeneko udal batzarraren onartutako aurrekontuaren arabera.

Gastuei dagokienaz, 45.026.587 pezeta lan ezberdinak egiten inbertituko dira. Lasaga-

ko zubia moldatzeak 8.791.000 pezetako aurrekontua du, mendi lanetarako 7.738.000 pezeta bideratuko dira, Iturnako erreka herrian bideratzea 7 milioi inguru gostako da, Lasagako urbanizazioa egitea 4 milioi eta Aurtizko sarbidea moldatzea

3 milioi terdi, bertzeak bertze. Diru-sarrerei dagokienaz, 20.807.378 pezeta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen bidez etorriko dira. Zergen bidez ia 8 milioi pezeta bilduko dira eta 17 milioi pasatuak tasa ezberdinen bitartez.

## Menopausiari buruzko solasaldiak antolatu ditu Ezpelura elkarteak

Ezpelura elkarteak, Donztebeko Osasun Zentroaren eta COFES-Haizearen laguntzaz, menopausiari buruzko informazio solasaldiak antolatu ditu.

Solasaldiak datozen bi asteetan eginen dira Donztebeko Osasun Zentroan, astearte eta ortzegunetan (ekainaren 9, 11, 16 eta 18an, beraz), arratsaldeko 4etatik 6etara.

Menopausia ikuspuntu ezberdinetatik (sikologikoa, soziologikoa, sozio-kulturala, tramenduak...) aztertuko da solasaldi hauetan. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 451746 telefonora (goizez). Eraberean, Donztebera hurbiltzeko ibilgailua ez dutenek ere deitzea eskatu dute antolatzaileek, arazoa moldatzeko prest baitaude.

**flash**

### Hirurteko Planeko inbertsio berriak

Urrozko argiteria berriren lanen aurrekontua 5.511.319 pezetakoa da eta Nafarroako Gobernuak 4.220.700 pezetako inbertsioa onartu du Hirurteko Planaren barruan. Iturenen, 5.000 eta 30.000 Volt-eko transformazio-zentroen moldatze proiektua onartu da. Aurrekontua 3.039.333 pezetakoa da eta Iruñetik etorriko den inbertsioa, berriz, 1.361.723 pezetakoa.

### Kukumiku lehiaketaren

finala ekainaren 13an, arratsaldeko 5etan eginen da Donztebeko zinemaren. Hamabi bikotek eman dute izena Langarra taldeak laugarren urtez antolatutako lehiaketan. Ituren eta Sunbilla maiatzaren 23 eta 30ean egindako kanporaketen ondoren bostz bikote izanen dira finalean.

### Web-orria

Eskualdeari buruzko informazio kulturala eta turistikoa eskaintzen duen web-orrialdeaz arri dute Internet-en Baztango Balleko Udalak, Malerrekako Mankomunidadeak eta Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak. Orrialdearen izenburua 'Ongietorri, hemen euskaraz bizi gara' da eta helbide elektronikoa: <http://www.eusnet.org/partaide/baztan-bidasoa>.

**BERTIZ**

**MALERREKA**

**Merkataritza eta ostalaritza lan poltsa sortu du Bertizko Turismo Partzuergoak**

TTIPI-TTAPA

Udako hilabetetan lan eskaintza zabaltzeko asmoarekin, ostalaritza eta merkataritza lan boltsa bat sortu du Bertizko Turismo Partzuergoak, Bitarte erakundearen laguntzarekin.

Lan boltsa honek zonaldeko pertsonak bilduko ditu, ikasleak batez ere, udako hilabeteetan merkataritza eta ostalaritzan lan egin nahi dutenak. Partzuergotik jakinarazi dutenez, «*sektore hauetan lana gehitzen da udako hilabeteetan eta kasu batzutan zaila izaten da udako langileak aurkitzea*». Beraz, lan eske daudenei nahiz langile hauen beharrean daudenei dohaineko zerbitzua eskainiko zaie, beraien egoerari aterabidea eman asmoz.

**'BEZEROARI ATENTZIOA' IKASTAROA ESKAINIKO ZAIE GAZTEEI**

Lan boltsa honetan apuntatzen diren gazteak, beren prestaketa hobetzeko, 'Bezeroari atentzioa' izeneko ikastaroa egingen dute. Bertalde, Partzuergoko establezimenduen beharrak eta lan eskaerak Partzuergora bidali ditzakete eta bertatik gazte horiekin harremanetan jarriko dituzte.

Informazioa eskatzeko eta apuntatzeko Partzuergoko Udaletara joan daiteke edo zuzenean 948 592 323 telefonora deitu.

**182 milioiko udal aurrekontua onartu da Beintza-Labaienen**

Beintza-Labaiengo Udalak 182.907.040 pezetako aurrekontua izanen du aurten. Inbertsioetan 147 milioi terdi gastatuko dira. Lanik

haundiena (96.626.338 pta) ur-hornidura eta urzikinen sarea berritzea izanen da. Bideak hormigoiztatzeko 27.797.092 pta erabili-

ko dira. Azken urteetan gauzatzen ari den errota-aren moldaketa lanetarako 4.662.000 pta bideratuko dira. Mendi lanetan, pistak moldatzen eta Beintzako plaza moldatzen ere egingen da gastua aurten. Nafarroa-


ko Gobernutik eta bertze erakundeetatik 116.415.049 pta etorriko dira dirulaguntzetan, baina dena ez da aurten egingen diren lanetarako izanen. Iaz egin zen kloratzaileak, aurten jasoko du dirulaguntza.



**DATORREN URTERAKO ERRENTAGARRIENA**

**ergak Arintzen Ditzuten Rural Kutxaren Produktuak**

**ETORKIZUNERAKO, SEGURUENA**



**PENTSIO PLANAK  
BIZITZA-AURREZKI PLANAK  
ETXEBIZITZA KONTUA**



**RURAL KUTXA**

**GOIZUETA**

# Herriko haurrak udalekura eramanen ditu Udalak

Euskararen aldeko autobus ibiltaria larunbatean egonen da herrian

ESTEBAN AROZENA

Behenafarroan kokaturik dagoen Bidarrai herrira eramanen ditu aurten herriko haurrak, zortzitik hamalau urte bitartekoak, Udal Euskara Zerbitzuak.

Goizueta, Leitza, Arano eta Aresoko neska-mutikoak elkartuko dira uztailearen 1etik 5era lau udalen arteko ekimen honetan. Antolatzailerak diotenez, irteera honetarako hautatutako lekuak baldintza guztiak betetzen omen ditu, logelak, sukaldea, jantokia, komunak, dutxak eta ur beroa edukiko baitu, besteak beste, Bidarraiko aterpeak. Gainera, begirale talde bat arduratuko da programazioaz eta behar den guztiaz.



## I. Dantzari Txiki Eguna

Bost herritako ehun dantzari baino gehiago aritu zen I. Dantzari Txiki Egunean. Argazkian Goizuetako Umore Ona taldekoak ageri dira.

## EKBren autobus ibiltaria herrian izanen da larunbatean

Euskara Zerbitzu ezberdinek eta EKBk antolatutako euskararen aldeko autobus ibiltaria

herriko plazan egonen da ekainaren 6an, larunbata, arratsaldeko 4etatik 8etara. Nafarroako garai bateko eta gaur egungo euskararen egoerari buruzko 45 minutuko bideo emanaldiak

eskainiko dira autobusaren barrenean, 25 laguneko taldetan.

Egun berean, eta autobusak bere atea itxi bezain laister, Leitzaiko koadrila batek egindako filmea emanen da

gaztetxean. '40 ordu' izenburuko pelikula haurpantaila erraldoia botako da, eta hainbat egile eta aktore bertan egonen dira filmaketari buruzko bitxikeri batzuen berri emanez.

**ARESO**

# Herriko Etxea moldatzea 18 milioi gostako da

Hirurteko Planean sartu du Nafarroako Gobernuak

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Aresoko Herriko Etxea moldatzeko lanak Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean sartu ditu Nafarroako Gobernuak. Aurrekontua 18.655.760 pezetakoa da eta Nafarroako Gobernuaren inbertsioa, berriz, 9.534.358 pezetakoa. Aspalditik zuen beharra, baina laister i-

txura berritua ikusiko dugu Herriko Etxea.

## Eskolarteko pilota txapelketa

Eskolarteko pilota txapelketan, alebin mailan herriko Xabi eta Mikelek ez dute partidu bakar bat ere galdu, oraindik. Pilota maila altuan jartzen saiatze ari direlako, zorionak eta segi horrela.

## Kultur Egunerako prestakizunak hasi dira

Kultur Egunerako ekitaldiak prestatzen hasiak dira dagoeneko. Ekainaren 21ean ospatuko da aurten eta antolaketa lanean burubelarri sartuak daude. Iaz bezalaxe, Mikel Aingearuaren etorrerarekin batera ospatuko da Kultur Eguna.



## Lehenengo jaunartzeak

Eguraldia lagun, ospakizun ederra izan zen elizan Igokunde egunean. Herriko dantzariak kolorez alaitu zuten meza, sarreran eta irteeran arkua eginez bildutakoei. Aurrekoa dantzatu zieten egun horretan protagonista izan ziren Txomin, Naiara, Itxaso, Xabi, Maitane eta Uxue.

**flash**

### UEUko ikasleei dirulaguntza

Udako Euskal Unibertsitatean matrikulatzen diren goizuetarrak udalaren dirulaguntza jasoko dute, batzarrean hartutako erabakiaren arabera. Aurtengo ikastaroak uztailearen 20tik 31ra egingen dira, Iruñean beti bezala.

### Irlandarekiko elkartasuna

Irlandarekiko elkartasun keinuak Goizuetan ere izan ziren maiatzaren 22an. Herrialde horretako bandera ikus zitekeen Udaletxeko balakoian.

# Gazte Asanbladak lokala eskatu du Udaletxeko beheko solairuan

Nafarroako Itzulia herritik igaroko da ostiral honetan

JOSEBA AZPIROZ

Irauli Gazte Asanbladak Udaletxeko beheko solairua eskatu du, lokal hau gazteen elkargunea izan dadin. Beraien esanetan, beharrezkoa dute lokal bat gazteen arteko harremana sendotzeko. Harremana indartzeaz gain, lokalak funtzio soziokulturala betetzea espero dute: eztabaidak, hitzaldiak, tailer didaktikoak, irteerak, kirolak, afariak, kontzertuak, etab... Hau idazteko unean Udalak erabakia hartzekoa zuen.

## Nafarroako Txirrindula Itzulia

Nafarroako XXXVII Txirrindula Itzuliaren etapa bat igaroko da Leitzatik ekainaren 5ean, arratsaldeko 3etan. Txirrindulariak Tafallatik aterako dira eta Leurtzako gainean bukatuko dute egun hirretako froga. Leitzan tar-teko helmuga jarriko da.

## Udal dirulaguntza Nafarroa Oinez-i

Udalak 25.000 pezetako dirulaguntza eman dio aurtengo Nafarroa Oinez antolatzen duen Zangozako ikastolari. Ibilaldirako eskatutako dirulaguntza, berriz, ukatu egin



## Ostiral honetan ere kontzertua Torrea tabernan

Ostiral honetan, ekainak 5, gaueko 12etatik aurrera, 'Corazón del Sapo' eta '%30' taldeek joko dute Torrea tabernan. Argazkian, maiatzaren 23an King Mafrundi taldeak eskainitako kontzertuaren irudi bat. Argazkia: Joseba

dio Mungiako Larramendi ikastolari, «euskararen aldeko ekimen kulturalentzat aurrekontuan jasotzen den partida nahiko bajua denez, aurrean dirulaguntza Zangotza eta Urruñako ikastolei

ematea erabaki delako».

## Nabe txikiak Landa Industrialdean

Landa Industrialdeko orube dotzionala eta nabe txikiak (100 m<sup>2</sup>ko nabe txikiak) egiteko bi

lurzati, subasta publikoan atera zituen Udalak eta Pagozelay Goizabal, S.L. enpresak besterik ez zuen parte hartu. Beraz, berari esleitu dizkiote, lehenengo 8,7 milioitan eta bigarrena 11,9 milioitan.

## Zenbait herrilur desjabetzeko baimena eman du Nafarroako Gobernuak

12.510 m<sup>2</sup>ko herrilurra, jabetza partikularreko 834 metroko bertze lursail batekin trukatzeko baimena eman dio Nafarroako Gobernuak Udalarri, Landa inguruan PII in-

dustrialdea sortzeko helburuarekin. Erabelean, Udalaren 9.653 metroren desjabetzea baimendu da, lur hori herriko zenbait bizilaguni zuzenean saldu ahal izateko. Bere ga-

raian, Udalak herrilurra zela kontuan hartu gabe eremu horretan etxe partikularak eraikitzekeko lizentziak eman zituen, legez kontra eman ere. Desjabetzearen helburua, beraz, okupatutako lur horien salmenta da, egoera legeztatzearen.

## flash

### Uilko zinegotzi baten kargu uztea

Beatriz Zabaleta Union Independiente Leizarra talde politikoko zinegotziak dimisioa aurkeztu du «arrazoi pertsonalak direla medio». Hauteskundetako zereendaren arabera, Juan Alduntzin Perurenak ordezkaturiko du.

### Ehoziri eta zaharberritze ikastaroei dirulaguntza

Nafarroako Emakumearen Institutuak zaharberritze eta ehoziri edo bolillo ikastaroengatik besterik ez du dirulaguntzarik emanen.

### Rezolako pinudiaren aprobetxamendua

Rezolako pinudiarengatik (1.037 metro kubiko emanen dituen insignis pinua) Goizuetako Jose Antonio Huizik egin zuen eskaintza hoberena: 6,2 milioi (oinarrizko prezioa baino 500.000 pezeta gehiago).

### Kultur Astea azken txanpan

Kultur Astea bukatzeko zenbait ekitaldi falta dira oraindik: Ekainaren 5ean, 3etan *Kiki, Koko, Moko eta Flax* paillozok plazan. 5etan atsaldetako eta 10etan '40 ordu' filma zinemaren. Ekainaren 6an, 10etan mendi ibilaldia eta musika eskolako kontzertua zinemaren. Ekainaren 7an, 11etan herri kirol jokoak eta 2,30etan herri bazkaria.

## GAZTELU ITURGINTZA

### KALEFAKZIOA

Elgoien 32  
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

## ttipi-ttapa

6.800 harpidedun  
25.000 irakurle

Zure publizitatea  
etxe xoko  
guzietan

☎ 948 631188

**BAZTAN**

# Iruritako V. Garagardo Besta igande honetan ospatuko da

Bertzeak bertze, 'Baron Rojo' talde historikoa arituko da

TTIPI-TTAPA

Iruritako Gazteak, Xorroxin Irratia eta Baztango Balleko Udalaren laguntzaz bosgarren urtez antolatutako Garagardo Besta larunbat honetan, ekainak 6, ospatuko da. Jaialdia arratsaldeko betan hasiko da eta musika talde hauek hartuko dute parte: Naco Goñi y los bluescavidas, Wichita, Thalium DL, Sutagar, Baron Rojo, Ktulu, Komando Moriles eta DJ' Gaston. Sarrera 2.000 pezeta ordaindu beharko da. Urtero bezala, musika aditzeaz gain, hainbat garagardo marka ezberdin probatu ahal izanen dira.

Urtero bezala, musika mota ezberdinak lantzen dituzten taldeak ekartzen saiatu dira antolatzaileak. Gaurko



## Baztan ikastolako haurrak sarituak Nafarroako Bertso-paper lehiaketan

Nafarroako XII. Bertso-paper lehiaketan, Baztan, Bertizarana eta Malerreka zonaldeari dagokionez, hainbat sari jaso dituzte Baztan ikastolako haurrek. 4. mailan lehen saria Xanti Iantzik eskuratu zuen eta bigarrena Fermin Elizegik. 5. mailan, lehen saria Lourdes Elizegik lortu zuen eta bigarrena Olatz Aldakok. Xanti Iantziren bertsoek, gainera, Nafarroa osokoen artean lehen saria eskuratu dute.

egunean furi-furian dau den taldeekin batera, aurtengoan Baron Rojo, aspaldiko urteetan hea-

vy musika egiten duen talde madrildarra ere ekarri dute.

Larunbatean, bi mi-

la pertsonatik goiti espero dituzte Iruritako plazan ekitaldi honen antolatzaileek.

## Balleko V. mendi ibilaldia iganderako antolatu dute Baztango Mendigoizaleek

Baztango mendigoizaleek bosgarren urtez antolatutako Balleko mendi ibilaldia igande honetan, ekainak 7, egingen da.

Aurten ibilbidea Elizondo eskualdean egingen da. Elizondotik bertatik abiatu eta Lekaroz, Etxebarria, Legate, Beltzuri, Atxuela, Xanpart,

Urdazubi, Osondo, Datxipie, Mentialdi, Azpilkueta eta Bagordin barna pasatuko da, 42 kilometro egin ondotik Elizondora bueltatuz. Antolatzaileek bertze bide bat eman dute aukeran, Azpilkuetara ailegatutakotan, Unbotora igotzea, alegia.

Ibilaldian parte hartzeko 700 pezeta ordaindu behar dira. Argibide gehiago jasotzeko edo izena emateko telefono hauetara deitzen ahal da: 948 581279 (Elixabet, goizeko 8etatik 3etara) edo 948 453419 (Ixabel, arratseko 8etatik 10etara).

## Pinuak eta alertzeak aprobetxatuko dira herri lurretan

Iurretako Central Forestal enpresak egingen ditu Baztango zenbait herri lurretako mendi aprobetxamenduak. Bere eskaintza, estereo bakoitzeko 402 pezeta (gehi BEZA) ordaintzea da, eta, guzira 9.041 estereo aterako dituzte, 3.634.482 pezeta ordaindu be-

harko dio Balleko Udalarri.

Zehazki, Larrakaitz inguruan 6.800 alertze aterako dira, Atxuelan 20.802 alertze, Eskisarroin, 26.250 alertze, Arlan 13.800 pinu, Gerezibeltzetan 9.425 pinu, Zozaiaiko Errotan 4.000 pinu eta Urballon 5.950 alertze.

## flash

### Saskibaloi Kanpusa Lekarozen

Nafarroako Saskibaloi Federazioak hamekagarren urtez antolatutako Saskibaloi Kanpusa Lekarozen egingen da abuztuaren 17tik 26ra. Pentsio osoan ehun plaza eta pentsio erdian hamabortz eskaini dituzte, 11 eta 13 urte arteko neska-mutikoei. Xehetasunak 581279 telefonon.

### Baztandarren Biltzarra

iragarriko duen kartela Ana Villoria eta Diego Calerok eginga da. Bertzalde, Baztango denda, enpresa, etabarrek emandako produktuekin prestatutako tonbolako boletoak 100 pezetatan salgai daude. Txartel hauek zuzeneko saria izaten ahal dute. Bertzela, uztailaren 19ko bazkalondoan bidaia irabazteko aukera izanen da.

*Eskisaroi  
jatetxea*  
Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013  
**ELIZONDO**

EUROPEAN VISION GROUP  
**BAZTAN OPTIKA**  
ORDUTEGIA:  
Astearte eta ortziral goizetan,  
10etatik 1,30etara eta asteazken  
arratsaldetan, 5etatik 7,30etara  
Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • ELIZONDO

**OSKORRI** *liburudenda*  
• Liburuak-prentsa-mapak-gidak  
• Argazkilaritza materiala  
• Papertegia-inprenta  
© 948 592 245 • Petrinea • **ORNOZ-MUGAIRI**

**BAZTAN**



Akordeolarien lana ederki eskertzen da bestetako otorduen ondotik...

# Almandozko bestak ekainaren 10etik 14ra ospatuko dira

Ortzegunean dantza txapelketa jokatu da

**Asteazkena, ekainak 10:**

**Eguerdiko 1etan** suziriak bestei hasiera emateko. **9etan** kalejira herrian barna. **10etan** herri afaria. **12etatik aitzinera** dan-tzaldia MODESTOrekin.

**Ortzeguna, ekainak 11:**

**7etan** gau-txorientzat gosaria. **8etan** argi-soinuak. **12etan** Meza Nagusia. **1etan** hameketakoa. **6etan** pilota partiduak. **8etan** kalejira. **9,30etan** herri afaria pilotalekuan. **11etan** dantza txapelketa. **12etan** dantzaldia MODESTOrekin.

**Ortzileria, ekainak 12:**

**7etan** gau-txorientzat gosaria. **11etan** mus txapelketa. **2,30etan** zikiro-jatea MODESTOK alaitua. **Arratsean eta gauean** dantzaldia EQUUS taldearekin.

**Larunbata, ekainak 13:**

**11etan** haurrendako jokoa. **4,30etan** plater tirake-



...bazkaltzeko tenorean nahikoa baita jan-edatekoak tamainan eta lagun koadrila ondoan izatea, umorez egoteko. Argazkiak: Jone Mitxeok utziak

ta. **5etan** haurrendako txokoaltada. **Arratsean eta gauean** dantzaldia JATOR taldearekin.

**Igandea, ekainak 14:**

**12,30etan** Almandozko dantzarien saioa. **6etan** herri kirol ikuskizuna Saralegi anaiekin. **8etatik aitzinera** dantzaldia PARADIS tal-

dearekin. **Gauerdian** 'Pobre de mi' aurtengo beste akabaila emanez. Ongi pasa!

**flash**

**Ingurugiro-sentsibilizazio kanpainak**

Nafarroako Gobernuak eskolaz kanpoko Ingurugiroari buruzko hezkuntza eta sentsibilizazio ekitaldiei zabalduko dirulaguntzadeialdira hiru proiektu aurkeztu ditu Balleko Udalak. Onddoeta Perretxikoen Astearen hamekagarren edizioak 211.000 pezetako aurrekontua izanen du. Sendabellarrei buruzko ikastaroaren aurrekontua 184.388 pezetakoa izanen da eta balleko denda eta komertzioetan plastikoak ez erabiltzeko sentsibilizazio kanpaina gauzatzeko 509.000 ptako aurrekontua aurkeztu da.

**Kukux Udaleku Irekiak**

Balleko Udalak eta Kukux Aisialdi taldeak Udaleku irekiak antolatu dituzte hirugarren urtez. Uztaila eta abuztuan Baztango bortz eta hameka urte bitarteko haurrek aukera izanen dute aktibitate, joku, txango eta ateraldiak egiteko, normalean goizeko 10etatik 1a artio (kanpora joaten bada, egun osoa), as- tean bi edo hiru egunez. Aurre izen-ema- tea Balleko Etxean egin behar da. Hilabete bat haur bakoitzeko 4.000 pezeta gostako zaio familia normalari eta 3.000 pezeta familia ugarriari. Bi hilabeterako matrikulatuz gero, horren bikoitza.

**ZUGARRAMURDI-URDAZUBI**

# Euria lagun, San Isidro Eguna ospatu zuten bi herrietako nekazariak Alkerdin

Eskolako hamahiru haur Arabako Maeztu herrian izan dira kanpaldian

MARGARI ETA KORO

Maiatzaren 15ean, usadioa den bezala, Urdazubi eta Zugarramurdiko nekazariak bereneguna, San Isidro ospatu zuten. Bi herriko nekazariak zirenez, ospakizuna ere bi herrien artean dagoen Alkerdi auzoan egin zuten: San Esteban kaperan Don Jabierrek meza eman ondotik landak ere bedeinkatu zituen eta gero 'Armua' jate-txean 28 lagun bildu ziren giro ederrean. Erran behar da eguraldiak lagundu zuela euria eginez, modu huntan nekazariak beren lanetatik librexeago gelditzen baitire.

**Eskolako haurrak kanpaldian**

Maiatzaren 27tik 29rainokoan bi herrietan neska-mutikoen jos-



Nekazariak San Esteban kaperan bildu ziren beraien egunean

tetak eta zalapartak ez ditugu sobera somatu. Zugarramurdi eta Urdazubiko hamahiru haur Arabako Maeztu herri-  
ra gan zaizkigu kanpaldian. Partitzeko tenorean nigarren batzuk izan dire baina seguraski ez dute batere gaizki pa-

satu: han Basetxe Eskola batean egon dire eta nekazaritzako ekin-tza batzutan aritu dire: baratze lanetan, animaliak zaintzen, ogia egi-ten... Bertze gisako ekintzetan ere aritu di-  
ra, txotxongilotan, kos-  
metikan, ibilbide eko-

logikoak egiten... Enbi-  
dia pittat ematen dute,  
ezta hala?

**Xaretaren historiari buruzko ikastaroa Urdazubian**

Xaretaren historia ezagutarazteko ikasta-  
roa antolatu da Urdazu-

biko Menta jatetxean. Alberto Santana, Deus-  
tuko historia irakaslea izanen da ikastaroa eman-  
en duena, ekainaren 12  
eta 13an Menta jate-  
txean berean. Informa-  
zio gehiago nahi izanez  
gero edo izena emate-  
ko deitu 948599020 te-  
lefonora.

**Iturri berria estreinatu zen Salbatore bestetan**

Umore eta giro ede-  
rrean gan diren Urdazubiko Salbatore bes-  
ten barrenean Iruin e-  
txeko Genaro Fagoagak egindako iturria estreina-  
tu zen. Iturria herri-  
landua da eta aintzina-  
ko errota hornitzen zuen kanalaren bazterrean egin dute. Ondoren anai-  
tasun bazkari batean bil-  
du ziren Urdazubi,  
Zugarramurdi, Sempere,  
Sara eta Ainhoako udal  
ordezkariak.

**BAZTAN FUNERARIA**  
EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK  
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO  
© 948 580373 • 908 776176



Patxarana eta likoreak:  
• Patxaka  
• Feijoa • Menta  
• Erregaliza • Tea  
• Kamamila anisarekin  
**BAZTAN**  
Tel.: 948453410 • Fax: 948453378 • **ARIZKUN**

**JATETXEA**  
© 948 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO  
**Galarza**

**ttipi-ttapa internet**  
**helbide berriak**  
Internet: [jalgi.com/topagunea/ttppi-ttapa](http://jalgi.com/topagunea/ttppi-ttapa)  
E-mail: [ttppi-ttapa@topagunea.jalgi.com](mailto:ttppi-ttapa@topagunea.jalgi.com)

**ZALDUBI**  
Martin Lizasoain Adansa  
• SUKALDE MOBLEAK  
• BAINU MOBLEAK  
• MANPARAK  
Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA



# Ihizi Jate elkarteak urteko Biltzar Nagusia egin zuen maiatzaren 17an

Hogeita zortzi haurrek komunionea egin zuten Salbatore egunean

MIXEL ETA JACQUELINE

Maiatzaren 17an Sarako 190 bat ehiztari biltzen dituen elkarteak urteko biltzar nagusia egin du. 1997ko ekintzen bilduma egin eta diru konduak aurkeztuak izan dira. Gastuak 155.000 libretara heltzen dira eta hauen hiru laurdenak askatzen dituzten ihizien erosteko dira. Aurten ihizi hauek askatuak izan dira: 73 erbi, 525 basoilar, 250 untxi eta lehen aldikotz, 350 galeper.



Sara eta Hendaiko gau eskolako kideak giro sanoan elkartu ziren

## Gau eskolak trenpu onean

Sarako gau eskolak gomitatatu du Hendaiko gau eskola joko pista batean parte hartzera maiatzaren 24 hontan. Gau eskolen arteko hairemanen sendotzea eta uskararen erabilpena-

ren bultzatzea zuten helburu. 30 bat AEKkide elgarretaratu dira eta giro sano eta herrikoi batean iragan dute eguna.

Bertzalde, AEKk eta Gure Irratiak antolatzen duen Josta Blai lehia-

ketan, Sarako gau eskola finala erdirat heldu da eta aitada hau Gure Irratitik zuzenean entzuten ahalko da ekainaren 4ean, gaueko 8etarik goiti. Beraz, entzule ern e...

## Salbatore orroitzeko egun bat segur haur ainitzentzat

Salbatorez, usadioan bezala, komunione ttikia zen eta aurten sekulan baino neska-mu-

tiko gehiago ziren. Bederatzi urteko 28 haurrek beren jaunartzea burutu dute. Erran gabe doa egun hortan eliza mukurua beterik zegoela eta familia ainitz elkartu dela.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

# ANZABAL

AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

## MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 948 580313  
ELIZONDO

## SOULE

**Hileta artea**

☎ 948 453 444  
☎ 908 779 903  
ARIZKUN

## MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinarako bidean, 66. km.

AMAIUR • Tfnoa: 948 453 060

## ARMUA Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

## ttipi-ttapa

6.800 harpidedun  
25.000 irakurle

## Kulturkari

### Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzula!

☎ 948 631188

## EZKONTZAK

**Jabier Otxoteko** eta **Jaione Larrarte**, Lesaka eta Hernanikoa, maiatzaren 9an.  
**Manuel Otxandorena Saldias** eta **Karmele Pikabea Zubieta**, Elgorriaga eta Alkaiagakoa, martxoaren 28an.  
**Jose Joaquin Berasategi Riezu** eta **Ana Isabel Elizondo Etxegia**, Iruñea eta Urrozkoa, maiatzaren 1ean.  
**Juan Jose Zelaieta Saharrea** eta **M<sup>a</sup> Edurne Osakar Ibañez**, Oronoz eta Cordobillakoa, maiatzaren 16an.  
**Juan Luis Perez Franzesena** eta **M<sup>a</sup> Jose Azkarraga Ariztegi**, Elizondo eta Iruritakoa, maiatzaren 18an.  
**Luis M<sup>a</sup> Verde Etxeberria** eta **M<sup>a</sup> Elena Mugiro Altuna**, Elizondokoak, maiatzaren 23an.  
**Santiago Aizpuru Iribarren** eta **M<sup>a</sup> Isabel Sagaseta Inda**, Oronoz eta Donamariakoa, maiatzaren 26an.

## JAIOTZAK

**Ane Etxepeteleku Burgete**, Lesakakoa, maiatzaren 2an.  
**Andoni Camino Iñarrea**, Amaiurkoa, maiatzaren 16an.  
**Haritz Iriarte Lopez**, Arizkungoa, maiatzaren 17an.  
**Arantxa Sese Agara**, Berakoa, maiatzaren 12an.  
**Mikela Garbiso**, Sarakoa, maiatzaren 6an.

### ZORIONAK!

Oparia ematan  
lehenak  
izan nahi  
dugu



Haurra sortu eta berehala etorri Iruñeko Kutxara. Aldatzeko sakitxo hau, haurraren garbitasunerako produktuez betea, emanen dizugu.

**Ez ahanzi familiaren liburuxka!**


**IRUÑEKO KUTXA**

## HERIOTZAK

**Juan Apezetxea Zubiri**, Goizuetakoa, maiatzaren 10ean, 71 urte.  
**Camila Zubeldia Arozena**, Goizuetakoa, maiatzaren 19an, 77 urte.  
**Francisco Salaberria Salaberria**, Goizuetakoa, maiatzaren 23an, 71 urte.  
**Doriana Arribillaga Juanena**, Leitzakoa, maiatzaren 14an, 85 urte.  
**Martin Bikondoa Bikondoa**, Elizondokoa, maiatzaren 14an, 73 urte.  
**Maria Juana Felipa Franzesena Igoa**, Gartzaingoa, maiatzaren 17an, 91 urte.  
**Maria Etxenike Igoa**, Elizondokoa, maiatzaren 17an, 82 urte.  
**Ruperta Saldias Telletxea**, Beintza-Labaiengoa, maiatzaren 17an, 84 urte.  
**Maria Iriarte Nabaz**, Sunbillakoa, maiatzaren 19an, 81 urte.  
**Palmira Palacios Alonso**, Elizondon, maiatzaren 23an, 84 urte.  
**Francisca Goñi Elizegi**, Elizondokoa, maiatzaren 22an, 94 urte.  
**Lorenzo Agirre Agirre**, Berakoa, maiatzaren 24an, 72 urte.  
**Martin Lasaga**, Sarakoa, maiatzaren 12an, 82 urte.



## KOMERTZIO ASEGURUA



**Zure  
komertzioko  
zaindaria**

**ASCAT**  **MNA**  
 Grupo Asegurador CAIXA CATALUNYA

Zenbat diru eta ilusio sartu dituzu zure negozioan?

Ez utzi alferrik galtzen.

ASCAT-MNAREN Komertzio Asegurua, zure diru-sarreretatik arduratuko den zaindaria da.

### Aseguru bikaina

Zure negozioa ez da bertzeak bezala, zure izakerak eta lanak ezarritako ezaugarriak baititu.

Zure beharrak ere ez dira bertzeenak bezalakoak. Komertzio Aseguruan zure nahi dituzun garrantziak aurkituko dituzu.

ASCAT-MNAREN Komertzio Asegurua, zure neurritik egindako aseguru da.

### Zerbitzu azkarrenarekin

Negozio batetatik solasten dugunean, gerta daitekeen arazoa moldatzea ez da aski, azkar egin behar da.

### Zerbitzu azkarrenarekin

ASCAT eta MNA, bi aseguratzaile haundiren elkartzeak dakarren esperientzia zure zerbitzura jartzen dugu, CAIXA CATALUNYA Espainiako aurrezki erakunde garrantzitsuenetako baten fidagarritasun ekonomikoarekin batera.

**ARIN**  
**ASEGURUAK**  
 Parrokia 21  
 Tel.-Fax: 948 450266  
**DONEZTEBE**

**TELKAR**  
**AUTO ESKOLA**  
 Saskaitez plaza  
 Tel.: 948 580 077  
**ELIZONDO**

# ELKAR autoeskolak 20 urte

**A**tzera begiratu eta lanean egin diren urte guzietaz ohar-tzea, harror egoteko modukoa izaten da auniztan. Are gehiago eskaintako zerbitzua 3.500 lagun baino gehiagorentzat mesedegarri izan denean, Elizondoko Elkar autoeskolakoen kasuan bezala. Horrek erran nahi du, azken 20 urteetan, A, B, C edo D moduko 3.500 gidabaimen baino gehiago atera direla bertatik. Azterketa egin duten gehientsuenek, gainera, lehendabiziko aukeran (behin bakarrik matrikulatuta) gaintitu dituzte alde teorikoa eta praktikoa. Ikasleen %80ak, zehazki. Estatistika hobetu egiten da alde teorikoari bakarrik begiraturaz gero. Izan ere, 20 urte hauetan ikasleen %91k gaintitu du azterketa teorikoa lehendabiziko matrikularekin.



Ordenagailu bidezko irakaskuntza sistema pertsonalizatua ezarri dute Elizondo eta Lesakako Elkar autoeskolak. Bi autoeskola hauek elkarlanean aritzen dira.

## Nafarroa osoko merkeena emaitzei begiraturaz

Bertalalde, Iruñeko Trafikoko Zuzendaritzak eman dituen datuen arabera, Nafarroako autoeskolarik errentagarriena da Elkar, emaitzei begiraturata bai behinik behin. Datu adierazga-

rri bezala, berriz, honako hau: 20 urtetan 7 ikaslek bakarrik egin dute azterketa 9 aldiz. EROSKIK argitaratzen duen Consumer aldizkariak berriki agertu duenez, berriz, Nafarroa osoko herrietan bigarren merkeena dugu Elkar autoeskola. Datu hoi arabera (herri diferentzetako 11 autoeskola aztertu dituzte), Altsasuko autoeskola baten gibeletik prezio hobereana eskaintzen du. Denetara, 143.734 pezeta gidabaimena eskuratzearren truke. Erreportai berdinean erraten denez, klase praktikoa Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian baino ha-

gitzez merkeagoak dira Nafarroan. Banaz bertzte 3.500 Pta baino guttiago kobratzen da gure herrialdean praktika ordu bakoitzeko.

## Aldaketak eta proiektu berriak

Azken aldi honetan gidabaimena ateratzeko azterketetan egin dituzten arau aldaketak direla-eta, zenbait berrikuntza egitea erabaki du Elkar autoeskolak. Batetik, ordenagailu bidezko irakaskuntza sistema pertsonalizatua ezarri dute. Aldaketa honen emaitzak arras positiboak izan dira, ikasleen %95ak lehen saiakeran gaintitu baitu azterketa teorikoa. Lehenbiziko proba hori autoeskolak izena eman eta bi asteren buruan gaintitu duenik ere bada, nahiz eta batzbesteko denbora 4

astekoa izan ohi den. Aurrerakuntza hauekin agiria ateratzeko denbora erdira etorri da, eta ikasle kopurua, berriz, bikoiztu.

Azterketa praktikoa egiteko ere ahalik eta errestasun gehien eskaini nahi dizkio Elkar autoeskolak bere bezeroari. Horrela, azkar eta segurtasunez erakustea posible egiten duten autoak erosten ditu, eta aldiberean ikaslea eroso egon dadin baldintza guztiak betetzen dituztenak. Praktikak hasi eta bi aste pasatu ondoren azterketa egiteko prest egoten da ikaslea normalki, eta datuek diotenez lehendabizikoan gaintitzeko aukera ugari ditu gainera.

Iruñeko Gaztelu enparantzako 32.ean bulego berria irekitzeko asmoa dute orain. ■

## GAINDITU DUTENEN KOPURUAK

### TEORIKA

Lehenengo paperekin .....%91  
Bigarreanean .....%8

### PRAKTIKA

Lehenengo paperekin .....%72  
Bigarreanean .....%17  
Hirugarrenean .....%10

### AZTERKETA OSOA

Paperak berritu gabe .....%81

# Burmuin elbarriendako Espainiako txirrindula eta futbol txapelketak Lesakan

- Ekainaren 6 eta 7an txirrindulariak eta 13 eta 14an futbolariak arituko dira
- Txapelketa Lesakara ekartzea ez da herritar guzuen gustokoa izan

Asteotan jokatuko dira Lesakan Espainiako burmuin elbarriendako txirrindula eta futbol txapelketak. Bi federazioek antolatu dituzte txapelketa hauek, Beti Gazte elkartearen laguntzaz.

Asteburu honetan txirrindularien txanda izanen da eta aurten koordinatzaile lana egin duen Xabier Iantzi lesakarraren erranetan, hamabortz bat txirrindulari etorriko dira. «Kontuan hartu behar da denetara 39 federatu daudela Espainia osoan, baina konpetizio mailan aritzeko moduan hogeitahi gehienez. Gero, denek arazo berdina baldin badute ere, bakoitzak duen afekzioaren arabera lau mailatan banatzen dira: bi mailatan (D-1 eta D-2) trizikloan ateratzen dira eta bertze bitan (D-3 eta D-4) bizikleta normalean» dio.

Lesakan eginen dituzten probei dagokienez, D-1 eta D-2koak



**Ekain Arruabarrena lazkaotarra da txapelketa irabazteko faboritoetako bat. Argazkian, Lesakan egingako entrenamendu batean.** Argazkiak: Aitor

erlojuaren kontra arituko dira, 1.500 eta 5.000 metrotan. D-3 eta D-4koek berriz, 5 kilometroko erlojuaren aurka-

koa eta 20 kilometroko proba, denak elkarrekin, eginen dute. Hego Euskal Herrian sei txirrindulari bertzerik ez

badaude ere (hiru Nafarroan, bi Gipuzkoan eta bakarra Bizkaian), estatuko probetan maila ona ematen dutela uste du Xabier Iantzik, «selekzioan ari diren bortz txirrindularietatik hiru euskaldunak dira, bi gipuzkoarrak eta bat bilbotarra». European Alemania eta Belgikako txirrindulariak dira onenak, eta seguraski herrialde hauetako ordezkari bat Lesakara etorriko dela dio Iantzik: «Abisatuak daude eta gu baino gehiago mugitzen dira, laguntzak ere haundiagoak baitituzte. Gu hagitz gutti ateratzen gara».

Xabierrek dioenez, kirol honetan zailena, probak antolatzeko prest dauden herri edo erakundeak topatzea da. «Ikuskizuna ez ez da batera erakargarria, auziztan ezinean ari direla ikusten baituzu. Ni mundu honetan sartua nabilenez proba Lesakara ekar zitekeela gogoratu zitzaidan».

## «Lesaka Euskal Herria da eta ezin dugu honelako txapelketarik onartu»

Espainiako txapelketa Lesakan antolatzea ez da herritar guzuen gustokoa izan eta 'Campeonato de España' aurkako Herri Taldea' ere sortu da. Idatzi batean, giza-sektore horri eta burmuin ezinduek bizi baldintza duinak izan dezaten lanean ari diren kolektibo eta pertsonen elkartasunik es-tuena adierazi ondotik, zera diote: «Lesaka, Nafarroa, Euskal Herria da eta beraz, ezin dugu inongo 'Campeonato de España' hemen antolatzetik onartzen ahal. Gu euskaldunak gara, baina gure izaera etengabe ukatua den bitartean espainiartasuna egu-nero inposatzen digute». Beti Gaztek Mastegin jokaturako azken liga partiduan pankarta ere zabaldu zuten.



**Xabier IANTZI** Txirrindulari proben koordinatzailea

«Hasieran hagitz gogorra egin bazitzaidan ere, gero gustora ari naiz lan honetan»

### Nola sartu zinen burmuin ezin-duak diren txirrindulari proben koordinatze lanetan?

Nire ikasketengatik (Kirol Majisteritza), ahalik eta kirol gehienekin harremana izaten eta ezagutzen saiatzen naiz. ASPAC-eren bidez, Espainiako Federazioko txirrindularien koordinatzailea izateko aukera eskaini zidaten due-la hamar hilabete eta onartu nuen. Esperientzia berria da eta nere-

### tzat baliagarria suertatzen ari da. Zein da zure lana, zehazki?

Nerea ez da entrenatzaile lana. Txirrindulari berberak ibiltzen dira alde batetik bertzera, orduan, nik probak antolatu eta gero deitzen ditut, eraman (abioia behar baldin bada txartelak erosi), zailtasun haundiak dituztenak garbitzen lagundu... Hasieran hagitz gogorra egin zitzaidan, baina gero gustora sentitu naiz. Kirol mai-

lan aukeraketa egitea entrena-tzaileari dagokio.

### Non barna ibili zara txirrindulari taldearekin?

Duela gutti Bizkaiko Itzulia izan genuen eta orain Villarrealen (Castellon) badugu bertze proba bat. Udan Estatu Batuetan izanen da munduko txapelketa eta txirrindulariekin batera bi lagun joanen dira. Normalean ez naiz joanen, han dena antolatua baitago eta nik ez dut zereginik. Entrenatzaile eta fisioterapeuta joanen dira seguraski, baina lekuren bat libratzen bada gustora joanen nintzateke, noski.


# Areso eta Lesakako tiralariak nagusi Euskal Herriko sokatira txapelketan

- Aresokoek bi txapel eta bi bigarren postu eskuratu dute
- Lesakarrek 560 kiloko txapela, bi bigarren postu eta hirugarren bat

Aurtengo Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketan Areso eta Lesakako Beti Gazte taldeak indarrean aritu dira.

Jexux Mari Etxezarretak zuzentzen duen taldeak txapel bat eskuratu zuen iaz. Aurten 600 eta 640 kilokoak janzteaz gain, bigarren izan da 560 eta 680 kilotan. Pisu haundiengan gainera, final ikusgarria jokatu zuen Aresok. Abadiño abantaila haundiarekin ailegatu zen finalera, baina aresoarrek aldea berdindu zuten. Kitarako tiraldian, ordea, bizkaitarrak nagusitu ziren.

Beti Gaztek, bere aldetik brontzezko bi domina lortu zituen iaz eta aurten marka hori ederki hobetu du. 560 kiloko txapelaz gain,



Aresoarrek txapelak jantzita, 600 kiloko Euskal Herriko txapeldun suertatu ondotik. 640 kilotan ere gisako irudia errepikatu zen. Egunkaria

bigarren izan da 600 eta 640 kilotan (gainerako tiraldi guztiak irabazi arren, Aresoren kontra hirutik bitan galdu ondotik) eta hirugarren 680 kilotan. Lesakarrek ere txapelketa bikaina burutu dute.

### «ARESO ETA BETI GAZTE HOBEXEAGO, GAINERAKOAK IAZKO MAILAN»

Aurretik Nafarroako txapelketa jokatu izana Nafarroako ordezkariarentzat abantaila izan dela erran dai-

teke. Joxe Otermin, Aresoko tiralariak dioten bezala, «konturatu ginen Beti Gazte gure parean zegoela. Gainerako taldeen egoeraz gero jabetu ginen. uste dut gu hobekixea go aritu garena eta gainerakoak iazko mailan». Bi txapelekin beraien helburua ederki bete du Aresok. «Iaz egindakoa, txapel bat lortzea, alegia, errepikatzea zen helburua eta bi

irabazi ditugu. Horrez gain, zilarrezko bi domina irabazi dugu eta hori ongi aritu garen seinale da» dio Oterminnek. Bere ustez taldearen hobekuntza nabarmendu da. «Oinarria finkatu egin dugu urtetik urtera, eta hobekuntza nabaria da. Nahitanahiez, lanaren poderioz oinarria finkatu egiten da. Gero kontuan hartu behar da Jexux Etxezarreta entrenatzaile aparta dela eta urtetik urtera hobeki prestatzen gaituela. Sokatiraz gauza asko daki eta sofitzen erakutsi digu».

Nafarroa eta Euskal Herriko txapelketetan goi mailan leihatu ondotik, aresoarrek nahiz lesakarrek meretzitako deskantsua hartuko dute orain.

### Beti Gazte


- Joxe Angel Mitxelena
- Carmelo Mitxelena
- Agustin Zubieta
- Beñardo Iantzi
- Paxkual Taberna
- Igor Telletxea
- Jexux Mari Telletxea

### Euskal Herriko sokatira txapelketa - 98

Pisua	Beti Gazte	Areso	Finala
560 kilo	1.	2.	Amezketza
600 kilo	2.	1.	Arronitz
640 kilo	2.	1.	Laudio
680 kilo	3.	2.	Legorreta

### Areso

- Javier Otermin
- Joxe Otermin
- Jexux Artola
- Txomin Artola
- Joxe Migel Artola
- Boni Etxetxikia
- Miguel Angel Sukunza
- Carlos Zabaleta
- Patxi Baraibar
- Mikel Baraibar



- Imanol Telletxea
- Alejandro Sarobe
- Gerardo Telletxea
- Iñaki Igoa
- Mikel Almandoz

- Juan Mari Izeta
- Mikel Arraiago

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### BESTAK

#### ALTZATE

► **Ekainaren 5etik 7ra.** Ikus Berako berriak, 11. orrialdean.

#### ALMANDOZ

► **Ekainaren 10etik 14ra.** Ikus Baztango berriak, 23. orrialdean.

#### MENDAUR

► **Ekainaren 7an** Trinitadade Eguna.

### KULTUR ASTEA

#### LEITZA

► **Ekainaren 4an** Guatemalari buruzko diapositiiba emanaldia, zinema. Gaueko 8etan.

► **Ekainaren 5ean** Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak. 3etan, plazan. Gaueko 10etan, zinema "40 ordu" filma botako dute.

► **Ekainaren 6an** mendibildia goizeko 10etan. Musika eskola-koen kontzertua zinema.

► **Ekainaren 7an** Herri kirol jokoak goizeko 11etan. 2,30etan Herri Bazkaria.

### BERTSOAK

#### BERA

► **Ekainaren 12an** arratseko 9etan Kultur Etxean, Jon Maia, Igor Elortza, Iñigo Olaetxea eta Aitor Mendiluze.

#### ARANTZA

► **Ekainaren 19an** Ekaitza elkartearen bertso afaria, Jon Maia eta Xabier Silveira bertsolariekin, Intsumisioaren Aldeko Taldeak antolatuta.

### ttipi-ttapa TELEBISTA



## Ekainaren 15ean hasiko dira emisioak

Bortzirietan 49. kanalean

Arantzan UEMA egunen egindako aurkezpen ofizialaren ondotik TTIPI-TTAPA telebistak bere erronka nagusiari aurre eginen dio, emisioei, alegia. Ekainaren 15a izanen da lehen emisio eguna. Beraz, adi egon egun hortan jarriko baitira ikusgai TTIPI-TTAPA telebistaren lehenengo imajinak.

Hasieran ikusiko den programazioan informatiboak izanen dira nagusi eta ordu desberdinetan errepikatuko dira; iluntzeko 8,30etan,

9etan, 9,30etan eta hurrengo eguneko eguerdiko 2etan. Halere, denbora aitzinera doan heinean programazioa osatuko da kirola, kultura eta bertze zenbait gai aztertuko dituzten saioekin. Programaziorik ez den orduetan ere, interesgarria suertatuko den "teletestu" modukoa ikusi ahal izanen da.

Zure etxean TTIPI-TTAPA TB ikusteko arazorik baldin baduzu, hobe duzu lehenbailehen antenen teknikoekin harremanetan jartzea.

### BASERRIA



#### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.000 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 173 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 95 pta./kiloa, bizirik.



#### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta/kg. Kanal
- Extra .....550
- 1.koa .....525
- 2.koa .....500
- **Urruxak:** Pta/kg. Kanal
- Extra .....560
- 1.koa .....525
- 2.koa .....510
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
- Nabarrak:** urruxak 18.000 eta idixkoak 24.000 Pta.
- Mestizoak:** urruxak 30.000 eta idixkoak 42.000 Pta.
- Behi zaharrak:**
- Behi nabar gizona: 370 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE

### DISKAK



Askoren artean

"Does time affect memory?"


AMANITA

Kalitateak ez du nahitahazie ospearekin lotua egon behar. Horren adibide garbia dugu Amanitaren kasua. Hazpamen kokatzen den etxe diskografiko tiki honek urteak daramatza maila oneko lanak argitara ematen, eta bilduma berri honek erakusten duenez, bide horretatik segituko dutela dirudi. Beti ere, musika estilo desberdinei ireki dizkiete ateak, esperi-

mentazioa ezaugarri nagusitzat hartuta. Hemen aurkeztzen dugun bilduma hau disketxearen katalogo ezinhobea duzu. 2 KDtan banatuta, mundu osoko bazterretatik heldu zaizkigun doinu eta taldeak aurkituko dituzu. Produktu hau, halere, ez duzu dendetan erraz topatuko. Kontakua: AMANITA, Etxeparia; 64240 URKOI, LAPURDI. ☎ (+) 33559297887.

## JAKIN BEHARREKOAK

### Ulertzen ez den kontraturik ez sinatu behin ere



Saltzaileak gure ezjakintasunaz baliatzen dira auniztan.

«Baldintza orokorreko kontratua» aditzen dugunean, halabeharrez sinatu beharreko kontratuak datozkigu burura; etxebizitza, telefonoa, aseguruak... Baina zer dira kontratuen baldintza orokor horiek? Ba, funtsean, kontratua sinatzen duten bi aldeetako batek bakarrik (guk ez, bertzeak) inposatzen dituen neurri edo baldintzak. Kontua da, edozein arazoren aurrean, nahitanahiez sinatu ditugun kontratu horietaz baliatzen direla saltzaileak, guri arrazoa ukatu eta beren interesen alde egiteko.

Kontsumitzaileen babeserako lege berri batek dioenez, gehiegizko klausulek inposatzean desorekak sor daitezke. Hori dela eta, baldintza orokorrak ulertzeko modukoak izatea eta ezagutzera ematea beharrezkoa da, baita, zer erranik ez, gehiegizkoak ez izatea ere. Izan ere, saltzaileek gure ezjakintasunarekin jokatzeko baitute auniztan, ulertzen ez ditugun hitz potoeloen gainatuz.

Aholku hobereana, horregatik, ulertzen ez duguna inoiz ere ez sinatzea da. Nola-baiteko konpromezua hartu aurretik, argibide eske aditu batengana jotzea komeni da. Hona hemen, adibide gisa, gehiegizkoak izateagatik epaileek indargabetu dituzten pare bat klausula:

a)- Bidai agentzien hainbat kontratutan agertzen da

**Baldintza orokorrak ulertzeko modukoak izatea eta ezagutzera ematea beharrezkoa da.**

ez direla kargu egiten "geratutako atzerapena hirugarrenengo baten errua baldin bada" aireportuarena, autobusarena... Honen inguruan atara diren sententziek diotenez, ordea, kontratuen sinatzaileen artean honelako desoreka sortzen duten klausulak gehiegizkoak dira. Baliogabeak, beraz.

b)- Ordaineko aparkaleku batzuetan hau irakur daiteke maiz: "zeozer ebastekotan nagusia ez da kargu egiten". Kasu guztiak ezberdinak dira, baina kontsumitzailearekin duten ardura ezin dute erabat saihestu. Gainera, badira hori frogatzen duten sententziak.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## MENDI IRTEERAK

### ELIZONDO

► **Ekainaren 7an** Baztango V. Ibilaldia: Elizondo-Elizondo.

► **Ekainaren 14an** Ikastolaren Eguna.

### LESAKA

► **Ekainaren 21ean** Lesakako IV. Itzulia.

## KONTZERTUAK

### ETXALAR

► **Ekainaren 9an,** KIZIO, Iruñako trash taldea. Arratseko 10etan.

## ERAKUSKETA

### ELIZONDO

► **Ekainaren 10a bitartean,** moble zaharren eta erretaulen zaharberritze erakusketa Arizkunenean. Arratsaldeko 7etatik 9etara.

## SOLASALDIAK

### DONEZTEBE

► **Ekainaren 9, 11, 16 eta 18an** menopausiari buruzko solasaldiak Osasun Zentroan.

## GUARDIAKO BOTIKAK


061 Tfnora. deitu behar da

► **Ekainaren 1etik 7rat** Arantza, Narbarre, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Goizueta.

► **Ekainaren 8tik 14rat** Igantzi, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► **Ekainaren 15etik 21era** Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Goizueta.

## LIBURUAK



«Oherako hitzak»

Pako ARISTI

EREIN

Poema bati adjetibo hau jarzteaz zilegi balitz, erranen gurutze Aristiren azken liburuko poemak 'errexak' direla. Zuzen-zuzenak eta ulerterrezak. Ez dezala gero inork erran poesia ez dela entenditzen eta zail egiten zaiola irakurtzea. Eguneroko gorabeherak aipatzen dira Aristiren olerkietan, hori bai, umore eta ironia ukitu nabarmenekin, berak bakarrik idaz-

ten dakien gisan. Izan ere, orain arteko lanarekin euskal poesigintzan bere txokoa eraiki baitu. Hona hemen *oherako hitz* batzuk. *Gurpil zoroan: Arazo latz bat zeukan emakumeekin: ez zen haiei hitz egitera ausartzen mozkortuta ez bazen; eta orduan ez zuen jakiten zer esaten zien.*

## ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

## GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

## LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko  
Iparraldetik 00-34-

# 948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohanik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

## LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

## IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

## MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

## ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

## DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**BERA.** Kanttonberrin pisua salgai. 3 logela, egongela, trastelekua eta 2 bainu. ☎ 948 630995.

**LESKA.** Pisua salgai, Bittiria 75, 4 esk. 3 logela, sukalde osoa, jangela, komuna eta balkoia. Garajea ere erosteko aukera. ☎ 943 625305.

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN EMAN

**BERA.** Pisu mobleztatua emanen nuke errentan. Eztegarara pasealekuan. Deitu eguerdi edo arratsetan, ☎ 948 630 270.

**BERA.** Etxebizitza mobleztatua errentan emanen nuke. ☎ 948 630 449.

## ETXEBIZITZAK

### 105 ETXE KONPARTITUAK

**IRUÑEA.** Berriozar auzoan neska bat behar da pisua osatzeko. ☎ 948 510 112.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

Martxan dagoen komertzioa salgai BERAn.

56 m<sup>2</sup>ko denda eta 75m<sup>2</sup>ko gibelaldea. Guztiz ekipatua.

## ROMANO DEKORAZIOA

Legia, 1 ☎ 948-631137/630941

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

**BERA.** 100 m<sup>2</sup>ko bajera, San Esteban karrikan, emanen nuke errentan. Edozein denda edo bulego jartzeko prest dago. ☎ 948 630 449 (eguerdi edo arratsetan).

## LANA

### 301 ESKARIAK

**Haurrak zaindu eta etxe-ko lanak egiteko emakumea behar dugu.** ☎ 948 637 050.

**Neska batek lan egiten luke haurrak zaintzen udan.** ☎ 948 580 389.

**Etxeko lanetan edo haurrak zaintzen lan egiten nuke.** ☎ 948 637 885.

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

**Christian Layrako saltzailak behar ditugu.** ☎ 948 452 469 (Emma).

**Hondarribian etxe-ko lanak egin eta haurrak zaintzeko neska edo andre bat behar dugu.** ☎ 943 639192. As-teburuetan 943 642866.

## IRAKASKUNTZA

### 401 ESKAINTZAK

**Bolillo egiten erakusten dut.** ☎ 948 581 131 (Teresa, Elbete).

## IRAKASKUNTZA

### 402 AKADEMIAK

## SPARK

ENGLISH ACADEMY CENTRE

Ingelerarekin arazorik? Ez duzu aprobatazea lortzen? Atzendu egin zaizu? ...edo aspertuta zaude?

UDAKO IKASTAROAK  
ABUZTUA-IRAILA  
MAILA eta ADIN GUZTIAK

MATRIKULAZIOA  
MAIATZA eta EKAINEAN

NATIVE CERTIFICATED Deitu lespromozioak gabe  
☎ 948 58 13 38

Giltzaudi, 12 - 3.B. ELIZONDO

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**Seat Marbella salgai,** egoera hagitz onean. ☎ 919 813 334.

**Peugeot 306 salgai,** NA-AM, 43.000 km, egoera onean. ☎ 948637 159 (arratseko 10etatik aitzinera).

**Nissan Almar 2.D6X salgai.** NA-AP, diesela. ☎ 948 630601.

**Opel Kadet GSI 2.0 deskapotablea salgai.** NA-4899-AB. ☎ 948630299.

**Citroen C15 Diesela salgai,** NA-AC. Prezio onean.

## MOTORRA

### 502 TAILERRAK

## MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:  
Panda 4x4,  
Renault Express D,  
Suzuki Vitara D,  
Fiat Uno,  
Fiat Tipo

## Audi VW SAMPI ARAGON

Bigarren eskuko kotxeak, furgonetak eta 4x4ak erosten ditugu.

☎ 948 450 354 • DONEZTEBE

## NISSAN BERABI tailerrak

☎ 948631445•BERA

Bigarren eskuko kotxeak:

Etorri eta ikusi gure auto berriak

☎ 948637342 (ilunabarretan).

Bi zakurkume setter-eus-

## ANIMALIAK

### 602 SALEROSKETAK

kaldunak eta bi katakume oparituko nituzke. ☎ 948 627 618.

**Boxer txakurkumeak salgai,** apirilaren 26an jaiokak. ☎ 908 390267 edo 948 450699.

**Collie eta artzain-alemandar zakurkumeak salgai,** arrazakoak. ☎ 948 6504

495.

**Katukume pertsiarra** erosiko nuke. ☎ 948 450 936.

Xira berde bat galdu nuen

## DENETARIK

### 701 GALDU-AURKITUAK

maiatzaren lehenengo egunetan (K.woy), Lesakako futbol-zelai inguruan. ☎ 948 637 879.

Burnezko petralak salgai.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

13,5 metro, 220 eta 180 mmkoak. 9.900 pezeta. ☎ 948 630 084.

**Jertseak egiteko makina salgai.** Ongi dago. ☎ 948 610 819.

Belarrari buelta emateko **piruleta salgai,** traktore tti-kiendako. Ia-ia berria. ☎ 948 453 418 (arratsaldeko 6etatik aitzin).

**Kotxe-kapota aulkia salgai,** "Bebe Confort", egoera onean. 15.000 Pta eta osagarriak erregalo. ☎ 948 513 895.

**Teleskopioa salgai,** merkea eta egoera onean. Argazki makinari akoplatzen ahal zaio. ☎ 948 630567.

Etxalarren gorotza errega-



## DENETARIK

### 703 BERTZELAKOAK

latzen dugu. Etorri, hartu eta eramane. ☎ 948 635056.

Ana Mari Telletxeari: maia-

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

tzaren 13an 18 urte egin ditu. Zorionak, ?ren partez. Gutxien espero duzunak gara. Ongi pasatu.

**Elizondoko Itziar Irisarri** zorionak maiatzaren 23an 26 urte bete dituelakoz. Txanpain kopa baten zain nago. Urdazubitik Alizia.

**Malerrekako 'pulpoentzat'**: oraindik ez dugu ikasi zahatotik edaten. Ea noiz erakusten diguzuen. Bi lagun.

**Iruritako Izaskun Zabale** tak (amets bat, izan nun, eztizko, amets bat) 17 urte bete ditu maiatzaren 8an. Zorionak klasekoen partez. Baztango! Baztango! finalen garaile.

**Olaia Salaberria Larrar** tek urteak bete ditu maiatzaren 21ean. Zorionak Zubieta eta Labaiengo familiaren partetik.

**Iñigo Irazoki**: zorionak zure urtebetetze egunaren gatik, ekainaren 3an bete dituzu ea. Eneritz, Estitxu eta Patxi.

**Arantzako Jaione Berga** rari: Aunitz urtez maiatzaren 14an 14 urte bete dituelakoz. Arantzako lagunak.

**Josu Eskudero**; ezagutzen zaitudanetik ez dut beste ezertan pentsatzen. Zure begi urdinak, ahots leuna eta zure gorputz irudia daukat bihotz barru-barruraino sartua. Zorionak urtebetetzean, eta bertso txapelketa irabazteagatik. Leitzako neska bat.

**Josu Eskudero**: zorionak maiatzaren 24an 16 urte egin dituzulako. Zure atze-

tik dabilzan Alemua taldekoen partetik.

Zorionak **Josu Eskudero** ri, mutilik politenari.

**Zorionak Iñigo!!!** Urte askotarako. Eta segi saskibaloian Maten bezala.

Oihan eta Lorearen partez. Ene "**Katius**" maiteari: zorionak zure urtebetetze egunean, eta urte askotarako. Zure bihotzeko azukre kokorra. Maite zaitut. Mua!!

Elgorriagako **Ane Otxan**-

**dorenak** 28 urte beteko dituekainaren 2an. Zorionak **Aurkidi Elkartearen partez**.

**Ane Otxandorena**: zorionak A.M. eta B.G. ren partetik.

**Jaione Elizaintzini**: ea noiz

mozkortzen garen zure kontura. Noizbait joanen gara zure lantokira bisitatzera. Espero dugu ordurako ikas-tea krema kanutilloetan sarzzen. Aunitz urtez. Errioxako Piperrak.

## URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.

## ALDAKETAK • ALDAKETAK • ALDAKETAK

Hemendik aitzinera argazki bakoitzarekin batera 35 Ptko 6 seilu (210 Pta.) bidali behar da. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Hori bai, argazkiak TTIPI-TTAPA TELEBISTAN ere aterako dira.



**Iñaki Telletxea Zaldain** elizondarrak urteak beteko ditu ekainaren 6an. Zorionak familia eta bereziki gurasoen partetik.



**Jaione Minda-gia** oiztarrak 8 urte bete ditu maiatzaren 30ean. Zorionak aita, ama eta Koldoren partetik. Muxu haundi bat.



**Zorionak Leire!** Aupa! 16 urte bete dituzu! Baina guk oraindik ez dugu ospatu! Lasai, zerbait pentsatuko dugu. Muxuak. Koadrila.



**Juan Luis Etxegarai Irazoki** beratarrek urte beteko ditu ekainaren 21ean. Zorionak bere familiaren partetik.



**Juan Antonio Prieto Irazoki** beratarrek 25 urte beteko ditu ekainaren 6an. Zorionak TRUSTERen partetik.



**Ramontxo Etxebeste** doneztebarrak 13 urte bete ditu maiatzaren 31n. Zorionak bere familiaren partetik.



**Alizia Olaizola** 26 urte bete ditu ekainaren 2an. Zorionak Silvia eta lagun baten partetik. Ea noizko txanpain botilak!



**Goretzi Zubillaga** ekainaren 1ean 7 urte bete ditu. Zorionak eta muxu bat gure neskatxoan. Familiaren partetik.



**Iosune Gerra** eta **Iraitz Astiz** leitzarrek 4 urte beteko dituzte maiatzaren 10ean. Zorionak Garbiñe eta Patxiaren partetik.



**Gorka Fagoaga Etulain** iturendarrak 7 urte beteko ditu ekainaren 14an. Aunitz urtez familiaren partetik.



**Xebe Fagoaga** iturendarrak 36 urte beteko ditu ekainaren 26an. Zorionak senarra eta semearen partetik.



**Iturengo Gregoria Iparragirre** maiatzaren 25ean urteak bete ditu. Zorionak Lesakako iloben partetik.



**Antonio Etxaide** urdazubiarrak urteak beteko ditu ekainaren 16an. Belarri-tiraldi haundi bat zure koadrilaren partez.



**Alfontso eta Joseba Iranzo Anduezar** zorionak zuen urtebetetze egunean. Aupa Ilunbe!



**Aritz Ostolaiz Kabrera** oiartzuarrek 19 urte beteko ditu ekainaren 10ean. Zorionak!



**Itxaso Etxabide Sagarazu** lesakarrak 10 urte beteko ditu ekainaren 10ean. Aunitz urtez, lagun!



**Edurne Marin Ametzoy** lesakarrak 4 urte beteko ditu ekainaren 11ean. Aunitz urtez Maite eta Mariasunen partetik.



**Doneztebeko Maite Urreaga** 12 urte beteko ditu ekainaren 6an. Zorionak Laura bere lagunaren partetik.



**Victor Orbegoza Tejeriak** 54 urte bete ditu ekainaren 4an. Familiaren partetik, zorionak!



**Boni Larralde** elizondarrak 80 urte bete ditu maiatzaren 13an. Zorionak biloba guzien partetik. Muxu haundi bat amaxirentzat!



**Berako Puri Pikabea** zorionak maiatzaren 30ean urteak bete dituelako. Txanpaina hartuko dugu elkarrekin. Koadrilakok.



**Ibai Retegi Zamorano** igantziarrak 8 urte beteko ditu ekainaren 8an. Zorionak Arkaitz eta gurasoen partetik.



**Dionisio Otondo Maritona** amaiurtarrak apirilaren 24an bete dituzte urteak. Zorionak familiaren partetik.



**Julen Otondo Aizpuru** zigatarrak ekainaren 28an beteko ditu 14 urte. Zorionak familia eta lagun partetik. Segi txintxo-txintxo.



**Lander Urtegi** beratarrek 4 urte bete ditu ekainaren 2an. Zorionak aita, ama eta Maileen partetik.



**Gorka Portu** lesakarrak 6 urte bete ditu ekainaren 1ean. Zuretar guztiok zurekin gaude zure egunean eta beñi. Musuak.



**Ainhoa Portu** lesakarrak 9 urte eginen ditu ekainaren 11n. Zorionak eta musu haundi bat gure neska politari. Familiaren partetik.



**Unai Aramendia** leitzarrek 11 urte beteko ditu ekainaren 11ean. Zorionak eta urte askoz.



**Julen Gil Barquilla** donostiarrak 4 urte eginen ditu ekainaren 6an. Zorionak Iraitz, Patxi eta Garbieren partetik.



**Jaione Elizaintzini** 16 urte bete ditu. Ea noiz gonbidatzen gaituzun afaltzera.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobra zure helbidearekin.

Hemendik aitzinera argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 6 seilu (210 Pta.) bidali behar da. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Hori bai, argazkiak TTPI-TTAPA TELEBISTAN ere aterako dira.



**Jesus Sanzek** 43 urte bete ditu maiatzaren 17an. Zorionak zure iloben partetik.



**Juanita Ganboak** 73 urte bete ditu maiatzaren 24an. Zorionak zure iloben partetik.



**Pepi Urizek** 41 urte bete ditu maiatzaren 23an. Zorionak zure iloben partetik.



**Lola Laderak** 65 urte bete ditu maiatzaren 25ean. Zorionak zure iloben partetik.



**Iñigo Sanzek** 6 urte bete ditu maiatzaren 24an. Zorionak zure lehengusuen partetik.



**Jaione Etxabek** 3 urte bete ditu maiatzaren 24an. Zorionak zure lehengusu, guraso eta anaiaren partetik.



**Loli Serranok** 37 urte bete ditu maiatzaren 13an. Zorionak zure iloben partetik.



**Ibai Hidalgo Mendigutxia "Mendi"** irundarrak 11 urte beteko ditu ekainaren 13an. Zorionak!



**Felix M. Elizalde Eskudero** doneztebarra eta **Natalia Trebejo** mugiarria ekainaren 13an ezkunduko dira. Zorionak beren familien partetik.



**Iñigo Erkizia** beratarrak bere lehen jaunartzea maiatzaren 31n egin du. Zorionak familiaren partetik.



**Gerar Telletxea Bergara** exalararrak 24 urte bete ditu maiatzaren 27an. Zorionak familiaren partetik.



**Julen Alzugarai Urzelai** beratarrak 2 urte bete ditu maiatzaren 20an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren eta Estherren partetik.



**Lourdes Sarrateak** urteak bete ditu maiatzaren 20an. Zorionak senarra, semeak eta ikaburuako familiaren partetik.



**Isabel eta Pedro** exalararrak urteak bete dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat bere seme-alaba eta familia guziaren partetik.



**Gerar Telletxea** exalararrak urteak bete ditu. Zorionak bere printzesa eta familia guziaren partetik.



**Josu Taberna** igantziarrak 10 urte bete ditu maiatzaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat bere familia guziaren partetik.



**M. Axun Iriarte** eta bere iloba **Izei Gilenena** maiatzaren 26-29an bete dituzte 15 eta 5 urte. Zorionak, Marilin, Elvis, Calimero...



**Lorea Artola Goñi** irundarrak 4 urte bete ditu maiatzaren 8an. Aunitz urtez familiaren partetik eta lau musu haundi.



**Andoni San Martin Zinkunegiri** zorionak maiatzaren 26an 5 urte betetzegatik. Egun on bat pasat!



**Urdazubiko Jaione Villares** zorionak zure urtebetetzean (maiatzak 15), Aupa parrandera! Urdazubiko lagunen partez.




**Itziar Zozaia Ariztegi** doneztebarrak 30 urte bete ditu maiatzaren 20an. Zorionak eta ongi ospatu. Bi lagunen partetik.



**Lourdes Elizalde** zubietarrak urteak bete ditu maiatzaren 17an. Zorionak eta ongi ospatu. Bi lagunen partetik.



**Itziar Bazterrika Arretxeak** 5 urte bete ditu maiatzaren 16an. Aunitz urtez aita, ama eta Pelo anaiaren partetik. Muxu bat.



**Igantzioko Joxe M. Goia Goienetxeak** 21 urte bete ditu maiatzaren 22an. Zorionak zure familiaren partez eta 21 muxu.



**Leire Ormaetxea Igarzabalek** 5 urte bete ditu maiatzaren 31n. Zorionak familiaren eta Lesakako osabaren partetik.



**Asier Sein Etxeberria** igantziarrak 4 urte bete ditu maiatzaren 31n. Zorionak familiaren partetik.



**Xabat Matxikote Seinek** urtea bete du maiatzaren 22an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat Olaia eta etxekoien partetik.



**Nekane M. eta Asier S.ri** zorionak maiatzaren urteak bete dituztelako. Kontuz zuek dakizuen lekua gastatu gabe! Ongi pasatu. Gu.



**Olaia San Miguel Mitxelena** doneztebarrak 2 urte bete ditu maiatzaren 30ean. Zorionak eta muxu haundi bat.



**Oihana Elizalde** aurtizarrak bere lehenbiziko jaunartzea egin du. Zorionak Zugararmurdiko familiaren partetik.



**Jesus Mentaberri** zugararmurdiarrak maiatzaren 20an bete ditu 31 urte. Muxu haundi bat Xara, Josu eta Aritzen partetik.



**Jesus Mentaberri eta Josu** bere semeari zorionak beren urtebetetzean, maiatzaren 20 eta ekainaren 1ean. Xara eta Aritzen partetik.



**Josu Mentaberri** zugararmurdiarrak 4 urte bete ditu ekainaren 1ean. Muxu haundi bat familiaren partetik, kamiloiari txikiari.



**Iñigo Etxeberria Petirena** elgorriarrak 11 urte bete ditu maiatzaren 20an. Zorionak bere familiaren partetik.



**Gregorio Ibarra Astizek** urteak bete ditu ekainaren 2an. Zorionak Irun eta Lesakako familiaren partetik.



**Alizia Olaizola** urdazubiarrak 26 urte bete ditu ekainaren 2an. Zorionak! eta ongi horrela. Kasu-man txanpainain. Kinta bat.



**Jamatit eta Mariana** azkaindiarrak berrogoita hamar urte ezkundurik zarettela, maiatzaren 12an. Zorionak adixkide multzoaren partez.



**Dominik Lekuona eta Juana M. Olaizola** zugararmurdiarrei, maiatzaren 25ean bi urte ezkundurik bete dituztelako zorionak eta muxu bat. Urdazubitik zuen lehengusua Alizak.



**M. Jesus Goia Telletxea** lesakarrak maiatzak 28an urteak bete ditu. Zorionak etxekoien partetik.



**Sunbillako Janire Apeztegiari** zorionak bere 2. urtebetetzean. Muxuak bere guraso eta familiaren partetik.



**Aritz Martinez** beratarrak 8 urte bete ditu maiatzaren 23an. Zorionak Aitziber, Naia eta Mikelen partetik.



**Aitziber Esnaola** beratarrak 8 urte bete ditu maiatzaren 29an. Zorionak martxosa, familiaren partetik.



**Beatriz Garcia Rios** beratarrak urteak bete ditu maiatzaren 13an. Zorionak guraso eta anaiaren partetik.



**Raul Garcia Rios** beratarrak urteak beteko ditu ekainaren 8an. Zorionak guraso eta arrebaren partetik.



# EZKALO

Jose Antonio Elizondo Jauna

INFORMAZIOA: 451518 (Doneztebe) • 23 48 30 (Iruñea) • 908.77.76.96 (Mugikorra)

Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero



## LEGASA

- Familia bakarreko etxebizitzak, bata bertzeari itsatsiak
- Bakoitza bere garaje eta lorategiarekin
- Inguruko etxeekin eta ingurugiroarekin ongi integrazteko diseinatuak
- Eskualdeko tradizioarekin bat egindako eraikuntzak. Punta-puntako teknologia erabili da zure etxebizitzari erosotasun haundiena emateko.

## BULTZATZAILEA

# SAIOA

CONSTRUCCIONES

Tel eta Faxe: 948 242129 • MUTILOA BEHEITI

### DONEZTEBE

- Josepa etxea salgai
- Apeztegia etxea salgai
- Pisu mobleztatua, zinemaren ondoan salgai.
- Amezti karrikan pisua garajearekin salgai.
- Bajera komertziala, Odriozola etxean salgai.
- Bajera komertziala, Intzakardi karrikan salgai.
- Pabilioi industrialak errentan ematen da. 120.000 pta/hilean.
- 150 metro kuadroko pabilioi industrialak salgai Aparanen.
- Mobleztatutako pisua errentan ematen da. 40.000/hilean.
- Laister Aparanen pabilioi industrial berriak, 75 m<sup>2</sup> edo haundiagoak.
- Baserria, zortzi lagunendako, errentan ematen da. Kalefakzioa. 40.000 pta/hilean. Zakurrak ez dira onartzen.
- Luxuzko pisuak laister eraikiko dira Herriko Etxearen ondoan. 14.500.000 pta.

### LEGASA

- Txaletak salgai. 14.500.000 pta
- Pisu salgai. 6.000.000 pta

### ELGORRIAGA

- Txaleta salgai. 13.500.000 pta.

### DONAMARIA

- Txaleta salgai.

### ULTZAMA

- Txaleta salgai.

### ARANO

- Etxea baratzearekin salgai.

### SUNBILLA

- Bizitzen jartzeko moduko baserria salgai. 16.000.000 pta.

### ALMANDOZ

- Baserria salgai. 11.000.000 pta.
- Borda salgai.

### ERATSUN

- Baserria salgai. 6.000.000 pta.

### ARANTZA

- Baserria salgai. 6.000.000 pta.

### ERRATZU

- Baserria eta borda salgai.

### ARRAIOZ

- Baserria salgai. 20.000.000 pta
- Borda salgai

### ZIGA

- Borda salgai.

### ORONÓZ-MUGAIRI

- Borda eta etxebizitza salgai.

### URROTZ

- Borda salgai.

### ITUREN

- Borda salgai. 1.200.000 pta.
- Borda salgai. 1.500.000 pta.
- Etxebizitza berriak.

### ZUBIETA

- Baserria salgai. Bide ona dauka.

### ELBETE

- Etxea salgai.

### LEKARÓZ

- Etxea salgai.

### LEKUNBERRI

- Etxea baratzearekin salgai.

### IRURITA

- Etxebizitza salgai. 6.500.000 pta.

### LESAKA

- Etxebizitza mobleztatua salgai.

### ORONÓZ-MUGAIRI

- Pabilioi industrialak salgai, 100 m<sup>2</sup> edo haundiagoak.

*Etxeak, baserriak,  
bordak, lur  
eremuak,  
etxebizitzak, villak,  
pabilioiak erosiko  
genituzke Baztan,  
Bidasoa eta  
Malerrekan.*

XXX

*Tasazioak egiten  
ditugu.*



# Lehen emisioa... ekainaren 15ean

*arratseko 8,30etan*

Bortzirietan  
**49.**  
kanalean

Gure zonaldeko berriak,  
gertakariak eta pertsonaiak  
erakutsiko dituen  
komunikabidea sortzera  
goaz. Herritarren

partehartzea nahitaezkoa duen herri telebista  
bat izanen da, egunero elkarren berri izan dezagun,  
Etxean ikusteko arazorik baduzu jarri gurekin kontaktuan edo zure  
herriko telebista teknikoarekin eta berak eginen ditu eginbeharreko  
moldaketak.



**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza, 1 • BERA  
Tel.: 948 631188 • Faxe: 948 631291

**Laster Malerrekan eta Urdazurin ere**